

hh
hik hasi

David Buenori elkarrizketa
'Zergatik ez dugu egiten?' unitate didaktikoa
Posible al da eskolan beldur barik bizitzea?
Motxiladun haurrak
Gazteen Euskaraldia Lasarte-Orian
Uharte Arte Garaikideko Zentroa
Garazi Arrula



GAZTEAK ERDIRA

JOEMAK eta POLASAK

Iñigo Astiz • Maite Mutuberría



Jolas egiteko
poema liburu
ilustratua



GLOBOA

Badirudi
globoak eskapu egin diola
umeari.

Baina agian
benetan umea erori zaio
globoari.

elkar

www.elkarargialetxea.eus

AURKIBIDEA

GAIA / 10

GAZTEAK ERDIRA

Gazteek prestakuntza eta ingurune egokia behar dituzte ahalduzko, bestela, 30 urte bete eta oraindik emantzipatu gabe jarraitzen dute. Pere Soler Gironako Unibertsitateko irakasleak dio ahalduzko duten espazioak eskaini behar zaizkiela eta helduen esku dagoela horiek eskaintzea. Eskola, kalea, gune instituzionalak, ez instituzionalak, autogestionatuak... denak izan daitezke ahalduzko espazioak.

ELKARRIZKETA / 16

DAVID BUENO

Neurozientzian aditua, Biologian doktorea eta Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea eta ikerlaria da. Garapenaren genetikak eta Neurozientziak ikasketa-prozesuan duten eragina aztertzen dihardu. Ikasketak bizitzan zehar esanguratsuak izateko gakoak mintzatu zen Luzaro Psikomotrizitate Eskolaren XIV. Jardunaldietan eta *hik hasi* aukera baliatu du elkarrizketatzeko.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Mikel Agirrezabala, Ane Aranburu, Ainhoa Azpiroz eta Ainara Gorostitu.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Joxe Mari Auzmendi, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia. **Administrazioa:** Uxue Ugartemendia. **Diseinua:** Grafik.

Maketazioa: Xangorin. **Inprimategia:** ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2019-12-17). Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Gazteak ahalduzko gakoak

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Gazteak erdira

16 ELKARRIZKETA

DAVID BUENO

“Ikasketak eraginkorragoak izatea nahi baldin badugu, motibaziotik eratorritako plazerean lagundu behar dugu”

24 ESPERIENTZIAK

Hizkuntzaren alderdi soziala lantzearen garrantzia

30 EKARPENAK 1

Posible al da eskolan beldur barik bizitzea?

32 EKARPENAK 2

Motxiladun haurrei erantzuna emateko tresna

36 GALDEIDAZU IÑAKI EIZMENDI

Lasarte-Orian gazteekin egindako Euskaraldiak zer emaitza izan ditu?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Uharte Arte Garaikideko Zentroa

42 ATZEKO ATETIK

Garazi Arrula

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN




Gipuzkoako Foru Aldundia



zerbitzua eta lana euskaraz

Elurra



ERANT

Gazteak ahalduntzeko gakoak

editoriala

GAZTEEK ERABAKIAK HARTZEKO AUKERA EDUKI BEHAR DUTE HELDU IZATEKO. ETA HORRETARAKO, HELDUEK EUREN ESKUETAN DUTEN BOTEREA EMAN BEHAR DIETE. BOTERERIK GABE EZ DIRA AHALDUNDUKO.



Gazteen ahalduntzea ez da gazteen kontua bakarrik, gizarte osoarena baizik. Hori garbi utzi zuen Pere Soler Gironako Unibertsitateko irakasleak EHUko Antropologia, Filosofia eta Hezkuntza Fakultateak antolatutako *Gazteen ahalduntzea* jardunaldian, eta aldizkari honetako gai nagusian biltzen dira han eman zituen azalpenak.

Zenbat aldiz entzuten da “orain dela urte batzuk 30 urtekoak helduak ziren, lana zuten, etxea ere bai eta familia bat aurrera ateratzeko gai ziren. Gaur egun, 30 urterekin oraindik gurasoen etxean bizi dira”. Banketxeetako *gazteen* libretak ere 30 urtera arte luzatzen dira gaur egun; alegia, 30 urtera arte gazteak dira, ez helduak. Zergatik luzatu da heldu izateko adin hori? Hortxe dago gakoa, eta Solerrek helduei begiratzen die galdera hori egitean. Haren ustez, gazteek ahalduntzeko eta emantzipatzeko formazioa behar dute, eta horrekin batera ingurune egokia, formazio hori bideratzen lagunduko dien gizartea: lana, etxebizitza, espazio independente bat... Eta gune horietan boterea behar dute, erabakiak hartzeko aukera eduki behar dute, bestela, ezin dute heldu izan.

Botere hori, ordea, helduek daukate. Eta ez diete gazteei eman nahi. Hortxe dago auziaren iltzea. Norbaitek beste bati boterea ematen baldin badio, berak galdu egiten du. Eta egungo gizartean, helduak ez daude boterea galtzeko

prest. Gizarte *helduzentrikoan* bizi garela dio Solerrek, eta helduak ez diren hainbat eta hainbat subjektu alboratu egiten dituela gizarte horrek, tartean gazteak.

Horregatik aldarrikatzen ditu gazteei ahalduntzen lagunduko dieten espazioak, momentuak eta ekintzak, eta tartean, hezkuntza formala. Ikastetxeak, institutuak eta lanbide eskolak gazteak ahalduntzeko gune egokiak izan daitezke, baldin eta esku-hartze egokiak egiten badira. Aurreko galdera bera planteatu daiteke kasu honetan ere: botererik ematen al zaie gazteei eskoletan? Hitza ematen al zaie? Erabakitzeke aukerarik ba al dute? Zein pisu du erabaki horrek helduen erabakiaren aurrean?

Termometro egokia izan daiteke horrelako galderak planteatzea irakasle helduen eta ikasle gazteen arteko harremanaren osasuna neurtzeko. Izan ere, txikitatik gerri estuan sartuta ibiltzen baldin badira, –eta zer esanik ez nerabezaroan eta gaztaroan, Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren garaian–, iritzirik emateko, parte hartzeko, eztabaidatzeko eta ikasitakoa zalantzan jartzeko aukerarik gabe, gero 30 urterekin bat-batean hori dena eskatu behar zaie? Erantzukizunez jokatzeko, gaitasun kritikoa edukitzeko eta erabakiak hartzeko? Hori ezin da egun batetik bestera lortu. Urteetan zehar landu behar da benetan gazte ahaldunduak nahi badira, benetan gazte helduak nahi badira.

“1959. urtean NBEk munduko haur, nerabe eta gaztetxo guztiei kalitatezko hezkuntzarako eskubidea aitortu bazien ere, une honetan 250 milioi analfabeto daude, eta horietatik 127 milioi eskolatzeko aukerarik gabe aurkitzen dira”

Geeta Rao Gupta



PARTZUERGOKO HAUR ESKOLETAKO KUDEAKETA SAILEKO LANGILEEK GREBA HASI DUTE

LAB sindikatuak deituta, Haurreskolak Partzuergoko kudeaketako langileak greba hasi zuten abenduaren 24an eta hilabeteko lanuztea dute iragarrita. LAB sindikatuak iaz akordioa sinatu zuen administrazioarekin, baina kudeatzaileen esparruan akordioan agertzen diren edukiak gauzatzeko, administrazioak ez duela hitzartutakorik bete salatu du sindikatuak. LABek adierazitakoaren arabera, administrazioak uko egin dio langileen zerrenda handitzeari, lan baldintzak Hezkuntza Saileko langileek dituztenekin berdintzea atzeratzen ari da, eta ordezkatzearren eta barne sustapenaren alorrean ere trabak jartzen ari da. ELA sindikatuko ordezkariak iragarri dute prest daudela greba deialdiarekin bat egiteko.

Grebaren lehen egunean, abenduaren 24an, negoziazio mahaioak bildu ziren, baina LABek salatu zuen ez zirela sindikatuak egindako proposamenak onartu eta ez zela inolako aurrerapausorik izan.

Kudeatzaileen esparruan ez ezik, ELA sindikatuak EAEko haur-eskola publikoen egoera orokorra jarri du auzitan. Egun ematen den zerbitzua ez dela nahikoa iritzita, haur-eskoletako zerbitzu “publiko, doako eta unibertsala” eskatu du. Matrikulazioek behera egiten jarraitzen dute (% 10 inguru azken urteotan), eta eskaintzen dituzten lekuetatik % 32 hutsik geratzen dira. Matrikulazio horren jaitzieraren atzean, jaiotze-tasaz gain, beste arrazoi batzuk daudela diote sindikatuko ordezkariak: prezioak altuak eta desorekatuak dira eta ezarritako kuoten sistemak ez du egoera hori konpondu. Horrek guztiak hezitzaileen egonkortasunean eragina du sindikatuko ordezkariak salatzen dutenez, behin-behinekotasuna oso handia baita; egindako 1.182 kontratuetatik % 59 baino ez dira behin betikoak. Kudeaketan aritzen diren langileen kasuan are larriagoa da egoera, langileen % 100 behin-behinekokoak direlako eta kontratu finkorik duen langile bakar bat ere ez dagoelako.

HEZKUNTZA ITUNEKO NEURRIAK BETETZEKO ESKATU DIOTE SINDIKATUEK GOBERNUARI NAFARROAN

LAB, Steilas, AFAPNA, CCOO eta UGT sindikatuak 2018ko abuztuan sinatu zuten Hezkuntza Ituna, eta urte eta erdi geroago kezkatuta agertu dira Hezkuntza Departamentuak ez duelako deus egin ondoriozko neurriak gauzatzeko. Horrexegatik, eskari bat egin diote Gobernuari: itunean jasotako neurriak betetzeko eta garatzeko beharrezkoak diren aurrekontu sail guztiak sartzeara 2020rako Nafarroako Gobernuaren Aurrekontuen aurreproiektuan.

Bestalde, Steilas sindikatuak salatu du Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren irakasleak kontratatzekeo zerrenda sistema zaharkitua dagoela. Sindikatuak zerrenda bateratua planteatu du, eta baita oposaketak eta kontratazio zerrendak bereiztea ere.

2 URTEKOENTZAKO ERE GARRAIO PUBLIKOA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen garraioari buruzko dekretu berria kaleratu du. Besteak beste, orain arte arauditik kanpo zeuden 2 urteko ikasleak eta Oinarrizko Lanbide Heziketakoak barne hartuko ditu dekretuak.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

IPARRALDEAN EUSKARAZKO EREDUA IGO ARREN, ORAINDIK IKASLEEN HIRU LAURDENAK EZ DU EUSKARAREKIN HARREMANIK



Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ikasleen hiru laurdenak eredu elebark frantsean ikasiten dute, EEP Euskararen Erakunde Publikoak emandako datuen arabera. Hau da, ikasle horiek ez dute euskararekin batere edo kasik harremanik. 2004tik gaur arteko bilakaerari begiratuta, euskarazko irakaskuntzak gora egin du, baina oraindik ere ez da aski. 2019-2020 ikasturtean ikasleen % 4,3 seaskan dabil ikasten, euskarazko murgiltze-ereduan; % 20,6 eredu elebidunean; eta % 68,7 frantseseko ereduan. Seaskan ikasgai guztiak egiten dituzte euskaraz, ama eskolatik hasi eta lizeora arte. Sare elebidunean Lehen Mailan astero ematen diren eskola kopuru bera izan beharko litzateke frantsesez eta euskaraz teoriarik. Kolegioan, gutxienez hiru orduko euskara-eskolak dauzkate ikasleek, eta ikastetxearen arabera, gutxienez beste ikasgai bat euskaraz -historia eta geografia izan ohi dira-. Aurten, ordu parekotasunera iritsi dira lehen aldiz Ipar Euskal Herriko lau kolegiotan.

EEP sortu zenetik hamabi ikastola berri ireki dira Ipar Euskal Herrian. Gaur egun 32 dira guztira, horien artean lau kolegio eta lizeo bat. Eskola publikoko eta sare girstinoko sail elebidunetan ere gorakada nabaritu da azken hamabost urteotan eta ikasle kopurua emendatu egin da sare elebidunean. 2004an 108 eskolatan eskaintzen zen aukera elebiduna, eta gainerako 147ak elebakarrak ziren. Ikasturte honetan 158 eskolatan proposatu dute irakaskuntza elebiduna; 75 baizik ez dira elebakarra eskaintzen dutenak.

Kopuruak emendatzea albiste ona bada ere, gehiago behar da, batez ere euskaraz bizitzeko adinako maila erdiesteko. Irakaskuntza elebidunaren kasuan, A2 maila lortu behar dute Lehen Maila bukatzean, B1-B2 maila kolegioa bukatzean, eta B2-C-1 maila lizeotik ateratzean. Maiz jartzen da zalantzan sail elebidunak proposatzen duen euskalduntze-maila, argi ikusten baita benetako euskalduntzea murgiltze-ereduarekin lortzen dela.

EAE-N 96 ESKOLA JAZARPEN ATZEMAN DIRA

Eusko Jaurlaritzak 96 eskola-jazarpeneren kasu identifikatu 2018-2019 ikasturtean. Guztira 755 kasu aztertu dituzte eta horietatik % 12,72 eskola-jazarpeneren modura identifikatu dituzte. Identifikatutako kasu gehienak, % 53, Bigarren Hezkuntzan gertatu dira; Lehen Hezkuntzan % 41 identifikatu dituzte; eta Haur Hezkuntzan % 6.

Horietatik gehienek bazterketa eta marjinazio soziala jasan dute (% 46k); hurrengo kasu gehiena hitzezko erasoak izan dira (% 31); hurrena, eraso fisikoak (% 6); beste hainbesteri (% 6) beldurra eragin eta xantaia edo mehatxuak egin dizkiete; jazarpeneren edo abusu sexuala edo jazarpeneren sexista ere jasan dute (% 4); eta baita beste-lako erasoak ere (% 6). Identifikatutako kasu horien % 23tan jazarpenera nagusiki Internet, sare sozialak edo bestelako bitarteko zibernetikoren bat erabiliz egin da.

IKASLEEK BAT EGIN DUTE URTARRILAREN 30EKO GREBA OROKORRAREKIN

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak greba iragarri du urtarrilaren 30erako pentsio eta bizitza duinen alde. Hainbat gazte eta ikasle mugimenduk bat egin du deialdiarekin eta zenbait arlotan aldarri propioak landu dituzte, besteak beste, gizarte politikei, prekaritateari, emantzipazioari, feminismoari, hezkuntzari eta klima larrialdiari lotutakoak.



URTARRILAREN 24AN IREKIKO DITU ATEAK BIRSORTUREN GUNEAK



Haurrek esperimentaziorako eta ikerketarako duten grinaren pizgarri izateko eta sormena lantzeko proiektu berri bati ekin diote elkarrekin Hik Hasik eta Emaus Gizarte Fundazioak. Iaz hainbat ikastetxerekin egindako esperientzia pilotuarekin hasitako ibilbidean urratsak sendotzen jarraitzeko asmoa dute orain. Ikasturte honetan Debagoiena eskualdean zentratuko da Birsortu proiektua eta urtarrilaren 24an irekiko ditu ateak guneak.

Italiako Reggio Emilia eskolen Remida proiektuan du oinarria egitasmoak eta honako helburua du: haurrekin prozesu hezitzaile, kultural eta sozial bat bultzatzea lortu nahi da, industriari baztertutako materialari balorea emanaz. Modu horretan, hainbat enpresatik jasotako birziklatutako material anitzak eskolen eskura jarriko ditu Birsortuk, haurrek esperimentatu, manipulatu eta beste erabilpen bat eman diezaioten.

Urtarrilean zabalduko den guneak 40 m²ko azalera izango du eta eskolentzako prestatuko den materialaren bilgune izateko funtzioa beteko du. Horrekin batera, material birziklatuarekin hainbat tailer egiteko espazio itxi bat ere izango du aretoak. Debagoieneko Haur Hezkuntzako ikastetxe guztiei eta iaz Birsorturen esperientzia pilotuan parte hartu zuten ikastetxeei bideratutako espazioa izango da hasiera batean eta egun jakinetan, arratsalde partean egongo da zabalik, irakasleak bertaratu eta interesatzen zaien materiala hartzeko.

Heziketa, sormena eta kultura batzen dituen egitasmo berri honetan ilusioz ekingo diote Hik Hasik eta Emausek ibilbide berriari.

OTSAILAREN 7AN ZINEMETAN IKUSGAI IZANGO DA 'LUR ETA AMETS' FILMA



Otsailaren 7an estreinatuko dute Euskal Herriko eta Kataluniako zinemetan *Lur eta Amets* animaziozko filma. Egun horretatik aurrera, Lur eta Amets neba-arreba bikiak eta gainerako pertsonaiak mugimenduan eta pantaila handian ikusi ahal izango dira.

NEREA MENDIZABALEN GURASO ESKOLA ONLINE FORMATUAN

2020a formatu berri batekin abiatuko du Nerea Mendizabalek, online formatuan eskainiko baitu Guraso Eskola. Sei saio izango dira guztira eta Zoom plataformaren bidez izango dira. Saioetan, besteak beste, Komunikazio Ez Bortitza, gatazken kudeaketarako tresnak, mugak eta haurren autoestimua landuko dira. Urtarrilaren 10ean itxiko da izen-ematea.

HIZPIDE IZANGO DA

'IKUSI-MAKUSI' HAUR ETA GAZTE LITERATURA AZOKA EGINGO DU GALTZAGORRIK LEHEN ALDIZ SARAN

Apirilaren 3an eta 4an ospatuko da Saran Haur eta Gazte Literatura Azoka, lehen aldiz. Apirilaren 3an egingo da Eskolen Eguna eta data horretan Euskal Herri osoko ikasleak elkartu nahi ditu egitasmoak, "euskaraz den haur eta gazte literaturaren inguruan aritzeko asmoz". Eskolen Eguna "erabat haiei dedikatua" izango dela azpimarratu dute: "euren sorkuntzen erakusketara bisita egin, euskal liburuak ezagutu eta erosi, euskal idazle eta ilustratzaileak topatu, ikuskizunak ikusi, tailerretan parte hartu, eta haien sorkuntzaren aurkezpen kolektiboa besteei eskaini". Eskolen egunean parte hartzeko aurrez izena eman beharko dute ikastetxeek eta dagoeneko irekita dago izen-ematea urtarrilaren 31ra arte. Interesa duten ikastetxeek www.galtzagorri.eus webgurearen bidez eman dezakete izena.



'HAUR ETA GAZTE LITERATURA ESKOLAN' IKASTAROA ANTOLATU DUTE

Irakurketa literarioak eskoletan duen lekua hobetzeko eta irakurketan bitartekari diren irakasle edo irakaslegaien formazio literarioa aberasteko asmoz, *Haur eta gazte literatura eskolan* ikastaroa antolatu dute Galtzagorri elkarteak eta EHUKo Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailak. Guztira 75 orduko iraupena izango du ikastaroak eta urtarrilaren 29an hasiko dira formazio saioak. Izen-ematea irekita egongo da urtarrilaren 15era arte. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak www.galtzagorri.eus webgurea joko dezake.

BALEUBEREN 2020KO FORMAZIORAKO IZEN-EMATEA IREKITA DAGO

Baleube hazkunderako gunek hiru formazio eskainiko ditu maiatza bitartean Donostian; urtarrilaren 29an eta martxoaren 1ean *Adierazpena pintura, buztina eta mugimenduaren bidez*; martxoaren 28an eta 29an, *Arretan eta jolasean oinarritutako ikaskuntza*; eta maiatzaren 9an eta 10ean *Mugimendua beharretik bizitzen*. Informazio gehiagorako: www.baleube.com.

'PEDAGOGIA SISTEMIKOA' FORMAZIOA ESKAINIKO DU IÑAKI ARANA SISTEMAK

Urtarrilean abiatuko dira formakuntza saioak eta Bergaran eta Donostian izango dira. Formakuntzaren helburua Pedagogia Sistemikoak hezkuntza komunitateari eskaintzen dizkion baliabide eta aukera berrietan trebatzea da. Aurreneko bi mailak egin ondoren aukera izango da master titulazio ofizialerako formakuntzan parte hartzeko.

'HEZIKETA LIBREAGO BAT EHUNTZEN' FORMAZIOKO HURRENGO SAIOAK

Ane Ablanedo 'Heziketa libreago bat ehuntzen' formazioa eskaintzen ari da Orioko Zingira eskolan. Lau modulutan banatuta dago formazioa, eta izen-ematea formazio osoan nahiz moduloka egin daiteke. Azaroan eskaini zuen lehendabiziko modulua eta urtarrilean 25ean, otsailaren 15ean eta martxoaren 7an izango dira hurrengo hiru saioak.



Gazteez hitz egiten da erreportaje honetan, 16-30 urte birtarteko gazteez. Itxuraz alde handia eduki dezakete 16 urteko batek, 23 urtekoak edo 30ekoak, baina ezaugarri bat ia denek dute: ahalduntze bidean dira, baina oraindik erabat ahaldundu gabe daude. Gaur egun 30 urteko gazte asko oraindik emantzipatu gabe bizi dira. Hori da egungo paradoxa: prestakuntza handia dute, baina inguruak ez die laguntzen emantzipatzen eta beren kabuz bizitzen. Espazio egokiak eta boterea falta dituzte, besteak beste, erabat ahalduntzeko. Egoera hori mahaigaineratu zen EHUko Antropologia, Filosofia eta Hezkuntza fakultateak antolatutako 'Gazteen ahalduntzea' jardunaldietan. Errealitateari argazki bat ateratzeko, gazteen hitza entzuteko eta proposamenak ezagutzeko aukera zabaldu zen bertan.

GAIA: GAZTEAK ERDIRA

Ahalduntze bidean

Gazteei buruz idatzi eta hitz egiten duten autore askok diote historian egon den belaunaldirik prestatuetan dela gaur egungo gazteena. Gazteek ez dute sekula gaur egun bezainbeste prestakuntza ordu jaso, ezta gaitasunak garatzeko hainbeste aukera ere, dela etxean, dela eskolan, dela birtualki, dela aisialdi espazioetan. Beraz, formakuntza gehien jaso duten eta gaitasun pertsonalak garatuen dituzten gazteak direla ondoriozta daiteke. Baina galdera bat sortzen da: gaur egungo gazteak hain prestatuak baldin badaude, zergatik jarraitzen dute gurasoen etxean 29 urterekin? Ezin dute emantzipatu? Ez dira gai era autonomoan bizitzeko? Zergatik ez dira beren kasa bizi? Erosotasunagatik? Izango dira batzuk erosotasunagatik gurasoen etxean jarraitzen dutenak, baina denak? Ala emantzipatzeko aukerarik ez dutelako da? Prestakuntza badute, gaitasunak badituzte, baina... inguruneak gaitasun horiek praktikan jartzeko aukerarik ematen al die?

Galdera horren erantzuna badu Pere Soler Gironako Unibertsitateko irakasleak: ez, inguruneak ez die batere laguntzen gazteei emantzipatzen. “Duela 40 urte, gaur egun gazteak deitzen diegun 25 urtekoen adinerako, lan finkoa zuten eta familia bat aurrera ateratzeko gai ziren, helduak ziren. Gaur egun 30 urtera arte gazteak dira. Zergatik?

Prestakuntza gehiago behar dutelako bizitzeko? Nik uste dut ezetz. Nik uste dut arrazoia zera dela: *helduzentrikoa* den gizarte honek hainbat eta hainbat subjektu alboratu egiten ditu eta itxaron-gelan egonarazten die, egungo gizarte antolaketak dituen botere egiturak okupatzeko lekua egon arte”. Eta agian horrexegatik luzatzen dira ikasketak infinitora arte, itxaron-gela horretako denbora betetzeko. Gazte bat unibertsitera iristen bada, gradua bukatzen duenean master bat eskatzen diote. Gero bat ez dela nahikoa esaten diote, bi egin behar dituela. Eta atzerrira joan ez bada, joan egin behar duela esaten diote. Eta gero, kontratu bat egiten diote, baina lanaldi erdikoa eta urtebetekoa. Eta hori amaitu ondoren, hasierako egoera berean aurkitzen da.

“Eta gazteria horixe da: nerabezaroa bukatu ondoren, gaitasun guztiak dituzte gazteek, kasu askotan boterean dauden helduek baino gehiago, baina ez dute botererik. Eta botererik ez duten bitartean, ez dira helduak. Gazteak dira eta gaztea izatea prekarioa izatea da. Zer esan nahi du prekario izateak? Bada, gaztetik heldurako trantsizioa ez dutela erabat egin, zerbait falta zaiela: etxebizitza, soldata, espazio independente bat... gutxieneko botere bat beraien bizitzan normaltasunez erabakitzeke”, azaltzen du Soler irakasleak.

GAIA: GAZTEAK ERDIRA

Ahalduntze bidean

Botere hori eskuratu behar dute gazteek heldu bihurtzeko eta ahalduntzeko. Baina ez da erraza, Solerrek dioen *hel-duzentrismoa* dela-eta. “Boterea ez baita kultura bezalakoa. Nik kultura eduki dezaket, eta beste pertsona bati kultura hori ematen diodan heinean, nire kultura ere handitu egin daiteke. Kultura biderkatzen eta birbanatzen joan naiteke nire kultura zatia gutxitu gabe. Boterearekin, ordea, ez da gauza bera gertatzen. Nik boterea baldin badut eta beste pertsona bati ematen baldin badiot, nik boterea galdu egiten dut ezinbestean. Eta hortxe dago koska: gazteak ahalduntzen badira, boterea ematen baldin bazaie, nork galtzen du boterea?”.

Zer da gazte ahaldundua?

16 eta 30 urte bitarteko gazteen ahalduntzea ikertzen hasi ziren Katalunian duela urte batzuk. Datu estatistikoez haratago, ikerketa bat abiatu zuten gazteekin elkartuz eta haien hitzak, bizipenak eta iritziak jasoz, eta hortik tiraka sortu da *Hebe proiektua*, gazteak ahalduntzeko eredu pedagogikoa (www.projecthebe.com). “Behin arazoa zein den jabetuta, ekintzara pasa nahi izan genuen. Zer egi-ten dute gazteriako teknikariek, haurtzaroko teknikariek,



Pere Soler Gironako Unibertsitateko irakasleak *Hebe proiektua*, gazteak ahalduntzeko eredu pedagogikoa aurkeztu zuen Donostiako EHUKo HEFAn egin zen Gazteen ahalduntzea jardunaldian.

gazteen dinamizatzaileek, hezitzaileek, irakasleek, gizarte langileek, pedagogoez, gizarte integratzaileek, animatzaile sozio-kulturalek... profesional horiek denek? Zer egiten dugu horiekin denekin dauzkagun datuak edukita? Nola esku hartu dezakete? Galdera horretatik abiatuta sortu da gure eredu pedagogikoa”, azaltzen du Solerrek. Eta, besteak beste, gazteak ahalduntzeko balio duten espazioak, uneak, ekintzak eta politikak definitu dituzte.

Hasteko, gazte ahaldundua zer den definitzetik hasi behar da, eta hainbat ardatzetan oinarritu dute *Hebe* proiektuaren bultzatzaileek. Hasteko, formazioa; ahalduntzeko ezinbestekoa da gaitasun pertsonalak eskuratzea eta garatzea. Bigarrenik, ingurune egokia; formazio horrek ezinbestean behar ditu gaitasun horiek garatzeko ingurunea, testuingurua, espazioa eta bitartekoak. Bi ezaugarri horiek edukita, gazte bat ahaldundua da gizartean erabakitzeko eta parte hartzeko aukera duenean, bai bere bizitzari buruzko erabakietan eta bai bera parte den kolektibitate horri dagozkionetan ere. “Eta erabaki eta parte hartu modu kontsekuentean”, azpimarratzen du Solerrek. “Hori oso garrantzitsua da. Kontsekuenteki parte hartzeak esan nahi du pertsona zintzoa izatea zeure buruarekin, ausartzea, pentsatzen duzunarekin kontsekvente izatea eta manipulatu ez uztea. Hori da ahalduntzea. Nik neu izan behar dut. Hain sinplea eta hain zaila, aldi berean”.

Horiek adituen hitzak dira, baina ez ziren gazteei galdetu gabe geratu. Eta gazteek ahalduntzea hitz hauekin lotzen dute: autoestimua, autonomia, gaitasun kritikoa, eraginkortasuna, komunitatearen nortasuna eta ezagutza, metaikasketak, parte-hartzea, erantzukizuna eta taldelana.

Ahalduntzen duten espazioen ezaugarriak

Espazio batzuk ahalduntzen laguntzen dute eta beste batzuek ez. Ahalduntzen lagungarri diren espazioak eta politikak sortzeko, ezaugarri hauek hartu behar dira aintzat:

- Gazteei bideratutako politika guztiek ikuspegi hezitzailea eduki beharko lukete: askotan ikustezinak izaten dira gazte hauek. Politika gutxi daude 16 urtetik aurrera eta 30 urte bete arteko gazteentzat. Apenas hausnartzen da gazte horiek zer behar dituzten osasunari dagokionez, lan arloari dagokionez edo etxebizitzaren gaiari dagokionez.
- Autonomia eta independentzia bultzatu: gazteengandik gertu egin daitekeen guztia, hobe hantxe gertu egitea. Are gehiago, gazteek egin dezaketen guztia, hobe beraiek egitea.

GAIA: GAZTEAK ERDIRA



- Programa irekiak, sormena eta askatasuna bultzatzeko. Ahalduntzearen oinarrietako bat gazteei adierazteko bitartekoak jartzea da. Sentitu dezatela euren ahotsa euren hitzekin, interesekin eta gaiekin.
- Kontzientzia hartzea bultzatzen duten programak: gazteek programaren diseinuan eta prestakuntzan parte hartzen baldin badute, horrek esan nahi du programaren beharraz konturatu direla. Beraz, erdia egina dago eta onura handiena jasotzen dutenak haiek dira.
- Erantzukina: positiboa da gazteek erantzukizuna duten espazioak izatea, hutsegiteak izatea, horietatik ikastea eta autonomia praktikan jartzea. Erabakiak hartzeko guneak izan behar dituzte, hori zer den jakin dezaten. Bestela, praktikatzen ez badute, ez dakite zer den erabakiak hartzea.
- Heldua egotea-ez egotea: jakin egin behar da erabakitzen zein proiektutan, zein zerbitzutan, zein espaziotan den garrantzitsua erreferentziazko heldua egotea. Garrantzitsua da jardunean dauden helduak egotea, eta garrantzitsua da baita ere ezer egin gabe aldamenean dauden helduak egotea. Eta beste batzuetan garrantzitsuagoa izango da heldurik ez egotea. Horrek ez du esan nahi proiektuari jaramonik ez zaiola egiten, baizik eta gaztea dela protagonista % 100ean.
- Mota guztietako zentroak: zerbitzu eta proiektu instituzionalak eta ez-instituzionalak egotea da egokia. Proiektu instituzionaletan hezitzaileak, dinamitzaileak edo gazteriako teknikariak egon daitezke, eta horiek ekitatea bermatzen dute, bestela, informatuta daudenak iritsiko dira eta informatuta ez daudenak –eta agian behar handiagoa dutenak– ez dute horren berri izango. Espazio instituzionaletan profesionalik gabeko espazioak, zerbitzuak eta ekipamenduak egotea ere komeni da. Eta baita espazio autogestionatuak ere, horietan esperimenduak baitezakete gazteek daukaten botere txiki hori. Emantzipatzeko leku egokiak dira, autogestiorako espazioak dira eta saiakera-hutsegitea esperimendatzeko aproposak.
- Belaunaldi arteko espazioak izatea: gazteentzako bakarrik diren espazioak ongi daude, baina gainerako adineko jendearekin batera parte hartzen dutenak ere bai. Bestela, nola ikasiko dute daukaten botere txiki hori kudeatzen praktikatzeko daukaten lekuan gazteak bakarrik baldin badaude? Boterea helduekiko harremanetan eduki behar dute, bestela segregatutako espazioetan soilik erabakiko dute, eta ez gizarteari osotasunean dagozkion gaietan.

Espazio bakoitzean zer?

Eskola

Ikasteko paradigma aldatu egin da bizitza errealean. Eskolan, aldiz, oraindik ez, oraindik lehenengo ereduari eusten die, hein handi batean. Gazteak, ordea, bizitza errealekin batera doaz, ez eskolaren erritmoan. Ez daude duela 25 urteko ezaugarriak lotuta, non eskolara joan, eseri, edu-

GAIA: GAZTEAK ERDIRA

Ahalduntze bidean

kiak jaso eta liburuan edo apunteetan zeukaten guztia. Gaur egun dinamika bestelakoa da. Ikasleek, nahi baldin badute, momentu batean jaitsi ditzakete aurreko ikasturteko apunteak, eskaneatu, hizkiak ezagutzeko programarekin ordenagailura jaitsi eta hurrengo egunean lana eginda eduki dezakete. “Nire iritziz, une honetan eskolatze garaiko traumarik handiena Batxilergokoa da. Sekulako basakeriak egiten ari dira gazteekin. 16, 17, 18 urterekin izugarritzko bizitasuna dute gazteek. Aurreko urteetan kirola, musika, pintura, dantza... ekintza asko egiten dituzte gazteek, baina Batxilergora iritsi eta gurasoen zein irakasleen aldetik mezu bakarra jasotzen dute: ‘zentratu zaitez ikasketetan bakarrik, etorkizuna jokoan duzu eta’. Eta hori gezurra da, hutsegite larria da. Gazte horiek kaletik desagertzen dira, ikasteko leku errealetatik desagertzen dira, eta ondorioz, zailagoa da ikastetxean ikasitakoa barneratzen. Institutuan ikasitakoa integratzeko, oinarritzkoa da sozialki parte hartzea, ikasitakoa ikusitakoarekin, arazoekin eta bizitza errealekin alderatzea, gatazkak konpontzea, administrazioari zerbait eskatutakoan zer gertatzen den esperimentatzea, beste sentsibilitate batzuk lantzea (kirola, musika, dantza...). Horrek guztiak lagundu egiten die umeei eta gazteei, eta aurretik egiten bada ere, Bigarren Hezkuntzan moztu egiten da”.

Horregatik dio Solerrek curriculumean dagoen erdiarekin antzeko emaitzak lortuko liratekeela, eta hobe litzatekeela beste erdia ikasleen arteko eztabaidetara bideratzea, ikasle guztiei –ez ausartak direnei edo ordezkariak direnei bakarrik– jendaurrean hitz egiteko aukera ematea, ideiak defendatzen aritzea, gorputza eta espresioa lantzea, kirolari lekua egitea, musika lantzea... “Eskolak ikasketa horiek integratu ditzake, eskolaz kanpoko ekintzak izateko partez eskolako ordutegian bertan sartuz. Lehen Hezkuntzako ikasgai batzuk kendu edo gutxitu eta aipatutakoak sartuta, ez dut uste ezer gertatuko litzatekeenik eta Bigarren Hezkuntzara orain bezain ondo iritsiko lirateke, baina autoestimatu gehiagorekin, adierazteko gaitasun handiagoarekin, autonomia, erantzukizun eta gaitasun kritiko gehiagorekin... hau da, ahalduntzeko ezaugarriekin”, dio Solerrek. “Horregatik, Lehen Hezkuntzatik hasi behar da hori dena lantzen baldin eta gazte ahaldunduak nahi baditugu 16 edota 30 urterekin”.

Kalea

Kalea da ahalduntze espazio nagusia, seguraski inpaktua eta efektua egiten denbora gehiena daramana eta beti presente dagoena. Historikoki beti egon da, dago eta egongo da, baldin eta gizarteak asko aldatzen ez badira. Edonola ere, zenbait lekutan zentro komertzialak kaleari lekua

kentzen ari dira. Leku epelak dira eta kontsumo mota bat eskaintzen dute –baldin eta dirua baldin badute–, kaleak ez bezala. Eta azkenean aisialdiko gune bilakatzen dira, baina ez beti ahalduntzeko leku.

Espazio kulturalak

Kultur zentroak eta politika kulturalak funtsezkoak dira gazteak askatasunez parte hartzera, sortzera eta adieraztera bultzateko. 15-16 urtetik gorako gazte batzuek ikasketak utzi egiten dituzte. Beraz, ez baldin badaude ikastetxe batean, zer estimulu kultural jasotzen dituzte? Kalekoak eta kultur etxeetakoak. Azken horietako eskaintzak batez ere helduentzat eta maila ekonomiko eta kultural jakin batekoentzat izan ohi dira. Gazteak ez dira aintzat hartzen. “Hainbat ikerketen arabera, Lehen Hezkuntzan kultur etxeetako aisialdi eta kultura eskaintza jasotzen duten umeen eta jasotzen ez duten umeen arteko ikasketa aldea 6.000 ordukoa da. Ikaragarri da. Desberdintasun hori areagotu egiten da Bigarren Hezkuntzan eta aurrerago. Horregatik da garrantzitsua gazteentzako programak eskaintzea informatzen jarrai dezaten, gauzak zalantzan jartzen, ikuspegiak irekitzen eta sozialki aktibo izaten”, dio Solerrek.

Ahalduntzen ez duten espazioak

Badaude ahalduntzen ez duten espazioak eta Solerrek argi adierazten du zein diren: “Hainbat komunikabide, telebista, Internet, sare sozialak... Errealitatearekin bat ez datorren irudi manipulatu eta alderdikoia ematen dute nahita, herritar talde batzuk ideologikoki manipulatu edukitzea interesatzen zaielako, eta talde horien artean daude gazteak”. Hainbat produkturen eta telefono mugikorraren kontsumoa bultzatzen dute, bizitza ulertzeko eta bizitzeko eredu posible bakarria erakusten dute eta gazte guztientzako ibilbide bakarria marrazten dute. “Eta hori berariaz diseinatu denean, ez dituzte gazteak ahalduntzen; kontrakoa, errealitatea ezkutatu dute ez dutelako zalantzan jartzeko eta aukera gehiagoren artean hautatzeko aukerarik ematen”, zehazten du irakasleak. “Horren aurka egiteko tresna ahalduntzen duen heziketa da, gazteei zalantzan jartzeko eta lerroen arteko irakurtzeko erremintak emango dizkien heziketa. Zeren gaur egun alfabetatuta egotea mezu bat nork bidaltzen duen jakitea eta mezu horren atzean zer egon daitekeen jakitea da. Gertatzen ari denaren irakurketa kritikoa egitea. Informazioaren gizarte honetan bizirautea horixe da: gaitasun kritikoa edukitzea, errealitatea berrekitzeko gaitasuna izatea eta ingurunean eragiteko gai izatea”. Komunikabideak aipatu aurretik izendatutako espazioek (familiak, eskolak, kaleak, kultur zentroek...) horretan lagundu dezakete.

‘Harrotu ileak’, ahalduntzeko eredu bat

Gazteekin lan egiteko espazioa, denbora, tresnak eta hezitzaileak eskaintzen ditu Donostiako Tabakalerako *Harrotu ileak*, *identitatea*, *harremanak* eta *gazteak* proiektuak. 2017an hasita, lanerako espazio bat eraiki dute, eta bertan gazteak, hezitzaileak eta artistak elkartzeko dira ostiralero. Denek elkarrekin ahalduntzeko balio dieten gaiak lantzen dituzte: botere-harremanak, identitatearen eraikuntza, arrazismoa, komunikazioa eta hizkuntza, kalteberatasun-egoerak... Gai horiek guztiak landuta, desberdinen arteko aintzatespen-, hausnarketa- eta topaketa-espazio bat sortu dute.

Aurtengo ikasturtean Tabakalerako Bouchra El Bagdadi gizarte hezitzailea, Eider San Martin Tabakalerako hezkuntza arduraduna eta Artaziak hezkuntza kooperatibako Oihane Espuñez elkartzeko dira gerturatzen diren gazteekin. “Gure proiektuaren funtsa artea da, eta hemen ditugun espazioekin eta baliabideekin gazteekin hainbat lan egiten ditugu”, azaldu du Bouchra El Bagdadik. Horrela, gazteekin elkarlanean, haiekin erabiltzen duten ingurunea birpentsatzen dute, eta denen artean espazio publikoak erabiltzeko eta okupatzeko moduak definitzen dituzte. Proiektuarekin daramatzaten lau ikasturtetan hainbat bitarteko erabili dituzte: argazkilaritza, bideo dokumentala, rapa, abesti kolektibo bat, erakusketa, zapalduen antzerkia, pintura, zinea, serigrafia... Arlo bakoitzean arituak eta adituak diren pertsonen parte-hartzea ere izan dute, besteak beste: Maite Arroitauregi *Mursego*, Telmo Trenor, Javi Pez, Juantxo Arakama, Ainhoa Olaso eta Maria Zapata Hidalgo.

16 urtetik 30era bitarteko edozein gazterentzat irekia dagoen proiektua da. El Bagdadi gizarte hezitzaileak dioenez, “batez ere magrebtar jatorriko gazteak gerturatzen dira, Tabakalerara etortzeko joera handia baitute. Egoera oso larrian bizi diren gazteak dira eta egunean zehar ez daukate egoteko beste lekurik. Tabakalera babestuta eta goxo dautte, mugikorra kargatzeko aukera dute, wifia... Liburutegian egotera eta ordenagailuekin ibiltzera etortzen dira. Egoera horretan, guk beste espazio bat eskaintzen diegu ekintza batzuk egiteko”. Tabakalerara gerturatzen ziren gazteei

proiektuaren berri emanez joan dira 2017. urtetik. “Hasieran mezu bat bidali behar izaten genien gogorarazteko. Orain, ordu laurden bat lehenago zain egoten dira. Seinale ona da eta nabaritzen zaie gurekin egoteko gogoia dutela eta gustura etortzen direla”.

Ikasteaz gain, bizi duten egoeraz ahanzteko balio diela gaineratzen dute gazteek. “Paperik gabe bizi gara eta horrek zaildu egiten digu lana bilatzea. Etxekoengandik urrun gaude eta gogorra da. *Harrotu ileak* proiektuak gure artean elkartzeko eta ekimen zehatzak egiteko aukera ematen digu. Zinema landu genuenean, esate baterako, film labur batzuk egin genituen eta asko ikasi genuen. Egunerokoari aurre egiteko balio diguten gauzak ikasten ditugu”. Orain arteko esperientziarekin oso gustura daude sustatzaileak zein parte-hartzaile gazteak. Aurrera begira, erronketako bat beste jatorriko gazteak ere hurbilaraztea da, espazioa aberatsagoa bihurtzeko eta aniztasunean elkarrekin ahalduntzen jarraitzeko.





“Ikasketak eraginkorragoak izatea nahi baldin badugu, motibaziotik eratorritako plazerean lagundu behar dugu”

ELKARRIZKETA:

DAVID

BUENO

NEUROZIENTZIAN ADITUA

Biologian doktorea eta Bartzelonako Unibertsitateko irakasle eta ikerlaria da David Bueno. Ibilbide akademiko eta profesional luzea du. Batez ere garapenaren genetikan eta Neurozientzian oinarritzen da bere ikerlana, eta horiek ikasketa-prozesuan duten eragina aztertzen dihardu. Neurozientzien Katedrako zuzendaria ere bada, munduan gisa honetako lehendabizikoa, eta dozenaka artikuluko zientifiko eta liburu argitaratuak ditu. Defendatzen duenez, ikasiz gure

ingurunera egokitzea da gure garunaren funtzio nagusienetakoa, baina heziketa segun eta nolakoa izaten den adimena gehiago edo gutxiago garatu dezakegula gaineratzen du. Ikasleei ezagutza transmititzeko erabiltzen dugun moduari erreparatzea oso garrantzitsua deritzo, horrek bermatuko duelako ikasten jarraitu nahi izatea. Luzaro Psikomotrizitate Eskolaren XIV. Jardunaldietan parte hartu berri du eta *hik hasi* aukera baliatu du bera elkarrizketatzeko.



Garuna aztertzen du Neurozientziak. Nola funtzionatzen du garunak? Zerk eragiten dio?

Adimenaren sostengua den organo biologikoa da garuna. Adimena garunaren funtzionamendutik sortzen da, ez dira bi gauza desberdin, beraz; errealitate beraren bi ikuskera, baizik. Neurozientziatik garuna nola osatzen den ikertzen dugu, hasi enbrioitik eta helduaroraino, garuna etapa guztietan aldatzen baitoa, etengabe. Garunaren aldagai ebolutiboak ere ikertzen ditugu, jakiteko nola iritsi garen egun daukagun garuna izatera. Horrekin batera, ekintza bat egiten dugunean, garuneko zein zati eta nola aktibatzen den ikertzen dugu. Irudika ditzakegun edozein ekintzek korrelazio zuzena daukate gure garunaren funtzionamenduari. Atsedean hartzen gaudenean, kirola egiterakoan, ikasterakoan, aspertuta gaudenean, berdin dio. Hori guztia ikertzea lagungarri zaigu garunak nola ikasi nahi duen jakiteko.

Eta nola ikasi nahi du garunak? Nola doakio hobekien?

Garuna batez beste 86.000 neurona inguruk osatzen duten organo biologi-

koa da. Baina gure bizitza mentala ez du neurona kopuruak baldintzatzen. Neuronek euren artean dituzten konexioen arabera osatzen da gure bizitza mentala. Erlazio horietan oinarritzen da gure garunaren bizitza. Landutako garun batek batez beste neuronen arteko 200 bilioi konexio dituela kalkulatu da. Estimulatutako garun bat —eta ez gain-estimulatua, horrek estresera garamatzalako—, jolasten duena, ondo pasatzen duena, kalitatezko loa daukana, kirolen bat praktikatzen duena, musika entzuten duena edo musika instrumenturen bat jotzen duena, adierazpen artistikoren bat egiten duena edo artea ikusiz gozatzen duena, arrazoiak emanez eztabaidatzen duena, hausnartzen duena, antzerkiaz gozatzen duena... hitz batean esanda, garun aktibo bat mila bilioi konexio izatera iritsi daiteke. Kontuan izan bost bider konexio gehiago egiteaz hitz egiten ari garela. Horretan datza desberdintasun nagusien muina. Zenbat eta konexio gehiago, orduan eta bizitza mental aberatsagoa. Eta hor kokatzen da hezkuntzaren zeregina. Gure ikasleei transmititzen diegun guztia —edozein ezagutza, kontzeptualak zein bere

gorputzarenak—, beraiekin bizitzen dugun edozein esperientzia beraien garunean barneratuta gelditzen da neuronen arteko konexio gisara.

Estimulazio gehiegik ez du laguntzen, beraz, aparteko konexio kopuru hori lortzen. Hor oreka lortzea beharrezkoa da?

Bai. Gain-estimulazioak oso erraz eramaten gaitu estresera. Eta estresa kronifikatzen denean funtzio fisiologiko askoren etsai nagusia bilakatzen da, baina baita ikasketei dagokionean ere. Estres kronikoak ikasketarako gaitasuna blokeatzen du. Aldizkako estres batek ez dio kalterik egiten inori. Gain-estimulazioak denboran irauten duenean dator arazoa, estres kronikora eraman gaitzakeelako, eta hori kaltegarria da ikasketarako.

Pauta batzuk eman dituzu garun aktibo bat lantzeko ekintzen inguruan. Ikasgela barruan, nola lortu ditzakegu aparteko konexio horiek? Nola aberastu erlazio horiek?

Zenbat eta jakintza gehiago eskaintzen diegun, zenbat eta esperientzia gehiago eta zenbat eta ingurune aberatsagoa aurkitzen duten beraien inguruan, orduan eta konexio gehiago egingo dituzte, orduan eta bizitza mental aberatsagoa izango dute. Horrek aukera gehiago eskaintzen dizkie bai beraien buruak ezagutzeko, planifikaziorako, ikasten jarraitzeko, beraien kabuz erabakiak hartzeko... Hori guztia oso garrantzitsua da, baina txanponaren alde bat baino ez da.

Eman diezaiogun bada txanponari buelta. Zer dago beste aldean?

Beste aldean egongo litzateke, aparteko konexio horiek nagusiki garunaren zein zatitan kokatzen diren ikustea, eta zer-nolako galderak, jarrerak eta jokabideak lehenesten dituen. Gure garunaren funtzio nagusienetakoa da bizi garen ingurunera egokitzea jakintza eskuratuz, ikasiz. Espezie gisa bizirauteko, ez dugu letagin zorrotzik, ez hatzapar handirik. Horregatik espezie biologiko gisa ikasten gozelako bizirauten dugu. Ikastea gure espeziearen sena da. Ikastea

biziraupenerako gure oinarri nagusia da. Gure ingurunetik ikasten dugu eta gure ingurunean gertatzen diren aldaketei aurre hartzen ikasten dugu. Ziurra ez den ingurune aldakor eta dinamiko batean bizi gara. Ez dakigu inoiz norantz aldatuko den, eta garunak justu horretara egokitzeko balio digu. Muturrera eramanda, oinarrizko bi modu daude ingurunearen ziurgabetasunei eta berritasunei erantzuteko. Bata berritasunei beldurrez erantzutea da. Mehatxu bat izan daitekeela pentsatu eta apartatzea hobe izango dela ondorioztatzea. Hori egiten dutenak eraldatzaileak ez diren pertsonak dira. Beste muturrean jakin-mina dutenak daude. Berrikuntzen aurrean hurbiltzen direnak eta ea hortik zerbait baliagarria atera dezaketen edo ez aztertzen dutenak. Eraldatzaileak diren pertsonak dira, beraien buruak aldatzeko gai direnak, ingurua aldatu dezaketenak, sinpleki jakin-min horrek sortzen dien plazer hutsagatik. Inor ez dago muturretan, guztiok gaude tarteko punturen batean, baina jakin-minera zenbat eta gehiago lerrokatzen garen, orduan eta eraldatzaileagoak izango gara, eta zoriotsuagoak ere bai.

Eta zerk eragiten du alde batera edo bestera lerrokatzea?

Gure ikasleei eskaintzen dizkiegun esperientzia guztiak neuronen arteko konexioak aberasten dituzte, beraien bizitza mentala elikatzen dute, baina hori guztia transmititzeko erabiltzen dugun moduak eragiten du alde batera edo bestera lerrokatzea. Ez zer transmititzen dugun, baizik eta nola egiten dugun. Alaitasunaren eta jakin-minaren bidez egiten badugu, sentsazio positiboaren bidez jakin-minerantz eratoritzen lagunduko diegu. Aldiz, behartzen baditugu, edota nahi gabe bada ere ezerosotasuna transmititzen badiegu gauza berrien aurrean, beldurrerantz eramango ditugu, berrikuntzen aurrean arbuiora. Horregatik diot zer transmititzen dugun garrantzitsua dela, baina niretzako garrantzitsuena transmisio hori egiten dugun moduari erreparatzea da. Azken finean, horrek bermatuko duelako ikasten jarraitu nahi izatea.

Adinari dagokionez nola eragiten digu transmisio-modu horrek garunean?

Garuna bizitza osoan aldatzen doa. Baina 5 eta 20 urte artekoa da garunean konexioak ezartzeko aldirik garrantzitsuena. Garai horretan ezartzen dira pertsonen garunean konexio gehien. Aldi horretan eragiten du gehien edozein ezagutza transmititzeko modu horrek. Adin horretatik aurrera ere egiten dira konexio berriak, baina gutxiago. 5 urtez azpikoan garaian, berriz, etengabea da konexioen ezartzea. Beraz, zenbat eta lehenago erreparatu transmisio-moduari, hobe.

Transmisio-modu hori hainbat tokitatik egiten dela kontuan hartu behar, hala ere.

Bai. Trasmisio-moduaz hitz egiten dudanean ez naiz hezkuntza sistemaz bakarrik ari. Hezkuntza zentrook hezkuntzaren pastel osoaren zati bat daukagu, gizarteak dauka beste zati bat eta familiak beste bat. Hainbat transmisio-moduren arteko batuketa bat da, eta guztiak norabide berean joatea komenigarria da, ez baita beti hala gertatzen.

Genetikak pertsonaren pentsamendu arrazionalen batezbeste % 34an eragiten duela jasotzen du zuen ikerketetako batek. Gainerakoa hezkuntzaren bidez landu dezakegula, abiapuntua edozein dela ere.

Pertsonak sortze beretik gara desberdinak. Dugun konbinazio genetikoen arabera bakarrak gara. Batezbeste 80.000 gene inguru ditugu garunean modu batera edo bestera funtzionatzen dutenak. Gene horiek, gainera, hainbat aldagai dituzte, gure portatzeko moduari, eta oro har, gure bizitza mentalari eragiten diotenak. Baina aldagai horiek adimen gaitasunari lotutako alde aurretiko jarrerari eragiten diete. Argi izan behar dugu alde aurretiko jarrerak ez direla guztiz erabakigarriak. Heredabilidade kontzeptuak neurtzen du genetikak gure bizitza mentalean zer-nolako pisua duen. Egindako ikerketen arabera, genetikak pertsonaren pentsamendu arrazionalen batezbeste % 34an eragiten duela ikusi dugu. Hortik,

“Gure ikasleei transmititzen diegun guztia —edozein ezagutza, kontzeptualak zein bere gorputzarenak— beraiekin bizitzen dugun edozein esperientzia, beraien garunean barneratuta gelditzen da neuronen arteko konexio gisara”

“Gain-estimulazioak oso erraz eramaten gaitu estresera. Eta estresa kronifikatzen denean funtzio fisiologiko askoren etsai nagusia bilakatzen da, baita ikasketei dagokionean ere”

“Zer transmititzen dugun garrantzitsua da, baina niretzako garrantzitsuena transmisio hori egiten dugun moduari erreparatzea da. Horrek bermatuko duelako ikasten jarraitu nahi izatea”



garrantzitsua da ondorioztatzea gainerakoa hezkuntzaren bidez landu dezakegula, abiapuntua edozein dela ere. Guztiok abiatzen gara maila desberdinetik, hori ezin dugu ukatu. Baina hezkuntzaren bidez, plastikotasun neuronala landuta, guztiok hobetu dezakegu gure bizitza mentaleko edozein alderdi. Baina segun eta nolakoa den jasotzen dugun heziketa txikitu ere egin dezakegu, mutilatu dezakegu. Horregatik, eta topikoa dela dirudien arren, desberdintasunekiko errespetuak izan beharko luke hezkuntzak eskaini beharko lukeen ezinbesteko osagaietako bat.

Zein izango lirateke beste osagaiak?

Pertsonen duintasunez hazten laguntzeak izan beharko luke hezkuntzaren iparra. Hor barnean hainbat aldagai sartzen dira: alderdi profesionalizatzaileak ditu, izan ere, egiten dugun lanak gizakion duintasunaren parte garrantzitsua hartzen du, baina ez da bakarria. Aldagai sozializatzaileak ere barnebiltzen ditu, izaki sozialak

garelako, eta gizartean bizi garenez, gizarte plural, konplexu, dinamiko eta aldakorretan integratu behar dugu. Baina ez norbanako pasibo eta sinesbera gisa. Baizik eta autoanalizatzeko gaitasuna duten subjektu eraldatzaile gisara, hobeto sentitzeko gure baitan zer aldatu behar dugun aztertuz, eta gure aldetaren bidez aurrerapen sozialean lagunduz.

Nola gainditu desberdintasunen arrakala?

Duintasunez bizitzen laguntzearen barnean desberdintasunak onartzea da lehendabiziko urratsa. Behin hori egiten badugu, guztiei aukera berdinak eskaintzea da hurrengo urratsa. Jakin dezagun gure ikasgeletan, maila guztietan, genetikoki ikasle ahaldunagoak ditugula eta beste batzuk gutxiago, baina eman diezazkiegun guztiei aukera handienak alderdi guztietan, guztiek jarraitu dezaketelako hazten, bakoitzak bere abiapuntutik.

Heziketa segun eta nolakoa izaten

den, hala ere, adimena gehiago edo gutxiago garatu dezakegula aipatu duzu. Ikasle-irakasle harremanak zerikusia izango du horretan, ezta?

Noski, aurreko helburu horietan ados jarri edo ez —alderdi ideologikoari lotuta dagoenez, guztiok ez ditugu helburu eta estrategia berdinak bilatzen—, hurrengo galdera honakoa da: zer, noiz eta nola ikasiko dugu? Eta bereizi nahi dut beste honako galdera honetatik: zer, noiz eta nola irakatsiko dugu? Ikasleekin erlazionatzeko dugun jarrerari buruz ari naiz. Beraiekin eraikitzen dudana harremana “gaur honakoa irakatsiko diet” pentsatuz egiten badut, beraien garunetan irakastearen sare neuronalak aktibatuko ditut. Baina nik ikas dezaten nahi dut. Ikasleekin “gaur guztiok ikasiko dugu” pentsatuz erlazionatzen banaiz —gauza desberdinak, noski—, kontzientzia gaude ikasleen garunetan ikastearen sare neuronalak aktibatzen ditugula. Irakaslearen papera bere inguruan ikasketarako giro egokia antolatzen duen oinarritzko ardatzaren egilea izatea da eta izan beharko luke, baina berak ere ikasten du ikasleekin batera, eta ikasleei esker. Ikasleak ez dira bat-batean ikasten hasiko. Horrekin batera beraien ezagutzetara heltzeko metodologia erakargarri bat beharko dute, baina dagoeneko lehengo ozttopoa gainditu dugu, eza-gutza berriak eskuratzeko errezeloa izaten da hori, eta askotan gainditzen zailena.

Konfiantza ematen diguten pertsonengandik ikasten dugula diozu, atxikimendurako sena bizitza guztian izango dugula bidelagun. Konfiantza giroa ikasgeletan gehiago landu beharko al litzateke ikasketak esanguratsuak izan daitezen?

Pertsona guztiok beti bilatzen dugu atxikimendua. Areto batera sartu eta egundoko pintxo eta ardo aukera zabala egonda ere, egiten dugun lehendabiziko gauza aretoan dauden pertsonen begietara begiratzea da. Sen hori beti dago gurekin. Pertsona batekin elkartzeko garenan egiten dugun lehen gauza begietara begiratzea da. Baina zoritxarrez hezkuntzan irakasle askok ez dute egiten. Haur eta Lehen Hezkuntzan

bai, egiten da. Baina gero institutuan oso ohikoa da irakaslea gelara sartu, ikasleei begiratu ere egin gabe lau marru egin isil daitezen, eta bere hitzaldia kontatzen hastea. Hor ez dago atxikimendurik. Eta horregatik ez dute funtzionatzen eskola horiek. Horrek ezagutzaren transmisiorako prozesuak kaltetzen ditu, ez delako senez guztiok nahi genukeen moduan hasten. Elkar begiratu, elkar ezagutu, elkarri zerbait kontatu, txutxumutxu bat, berdin zait, eta gero etorriko da bestea.

Haur eta Lehen Hezkuntzan egiten dela aipatu duzu.

Bai, Haur Hezkuntzan errazagoa izan daiteke hurrek irakaslearen eskua bilatzen dutelako, altzoan eramatea nahi dutelako... Badirudi hain txikiak izanda maitasun gehiago behar dutela. Baina bizitza osoan zehar behar dugu maitasuna, beste modu batzuetara, baina bizitza osoan behar dugu. Maitasun edota lotura intelektualago bat izan daiteke. Baina aurkitzen dituzunean “nik maite ditut nire ikasleak” dioten irakasleak —baita klasikoetan klasikoena bada ere—, irakasle hori bere ikasleekin inplikatu dela ikusten da, errespetatzen dituelako, eta irakasle-ikasle arteko laguntasun lotura bat eraikitzen ari dira. Sakonean hori ere lotura da, eta oinarri-oinarrizkoa da hori hezkuntza-arrakastarako.

Gure espeziearen biziraupenerako oinarria ikastea dela esan duzu. Nola hasten dira haur jaioberriak ikasten?

Jaiotzen direnetik batez beste 36 ordura hasten dira jaioberriak euren begirada bere zaintzaileen begiradetan pausatzen. Begiradaren bidez gure egoera emozionala transmititzen dugu eta horixe da, hain zuzen, haur jaioberriak ikasi nahi duen lehendabiziko gauza. Zer esan nahi duten interpretatzea, besteen egoera emozionalen aurrean beraiek nola jokatu behar duten ikastea, emozio ezberdinen aurpegiak erreproduzitzen ikastea eta gainerako pertsonen ere modu zuzenean interpretatzen dituztela ikusteak. Atxikimendua da, lotura da. Lotura emozionala da lehendabiziko ikasketa eta oso garrantzitsua da etorkizuna markatzen duelako.

Jolasaren bidez egiten dute lehen ikasketa hori hurrek, senez. Ondo pasatze hutsagatik baino gehiago, hurrek ikasteko jolasten dutela diozu. Nola eragiten du jolasak garunean?

Ezagutza berriak eskuratzeko senak eskaintzen digun bitartekoa da jolasa. Hurrek ez dute jolasten ondo pasatze hutsagatik; hurrek ikasteko jolasten dute. Ikastea instintu bat da, eta hori bideratzeko bitartekoa da jolasa. Jolasak beren ingurunearekin erlazionatzea ahalbidetzen die, ingurune fisiko zein sozialean, eta baita ingurune horietan beraien portaera bideratzeko aukera ere. Jolasa oinarri-oinarrizkoa da ikasketarako. Eta ondo pasatzen dute gainera. Zergatik? Garunak pertsonaren biziraupenerako oinarri-oinarrizkoa den ekintza oro ongizate sentazioarekin, plazerarekin eta dibertsioarekin saritzen dituelako. Eta horrek jolasten jarraitzea estimulatzen du, ikasten jarraitzeko. Haur batek bizikletan ibiltzen ikastea lortzen duenean, adibidez, munduko haurrik zoriontsuena da. Ikastean garunak dopamina deskarga ikaragarriak eragiten ditu. Dopamina motibazioarekin lotuta dagoen neurotransmisorea dela kontuan izanda, ikasten jarraitzeko motibazioan eragiten digu.

Emozioak ikasten ditugu lehendabizi. Zer paper jokatzen dute emozioek ikasketa-prozesuan?

Emozioak garunaren barneko zatian kokatuta dauden amigdala deitzen zaien egituretan sortzen dira. Emozioak portaeraren, jarreraren eta erreazioen patroiak dira, eta aurrekontzientzia egoeran eragiten dute. Emozio bat sortzen den momentu horretan ez dugu horren kontzientzia izaten. Geroago arrazionalizatu eta bideratu ditzakegu, baina ez sortzen diren momentuan. Aurrekontzientziatzeko patroiak dira emozioak, bat-bateko erantzuna eskatzen duten egoeren aurrean sortzen direnak. Edozein erantzun zuhurrek denbora gehiago eta energia metaboliko gehiago xahutzen dute gure garunean. Emozioak dira pentsatzeko denborarik ez dagoenean

“Egindako ikerketen arabera, genetikak pertsonaren pentsamendu arrazionalen % 34an eragiten duela ikusi dugu. Hortik garrantzitsua da ondorioztatzea gainerakoa hezkuntzaren bidez landu dezakegula, abiapuntua edozein dela ere”

“Institutuan ohikoa da irakaslea gelara sartu, ikasleei begiratu ere egin gabe lau marru egin isil daitezen, eta bere hitzaldia kontatzen hastea. Hor ez dago loturarik eta horregatik ez dute funtzionatzen eskola horiek. Horrek ezagutzaren transmisiorako prozesuak kaltetzen ditu, ez delako senez guztiok nahi genukeen moduan hasten”



bizirautea bermatzen digutenak, eta horregatik dira hain garrantzitsuak, erabakigarriak direlako. Espezie bezala zuhurrak izan gabe biziraun genezake, baina sentikorrek izan gabe ezingo genuke biziraun. Emozioei lotuta dagoen edozein ikasketa garunak era honetara interpretatzen du: “emozioak baditu, merezi duelako izango da. Hobe ikasketa hau ondo gordetzea, aurrerago berriro erabili beharko banu”. Oso garrantzitsua da hori. Onar dezagun emozioa edo zirrara sortzen digun hori.

Emoziorik gabe ba al dago ikasterik?

Bai, emoziorik gabe ikasi daiteke. Errepikapen mekanikoaren bidez ikasi daiteke. Baina emozioak dira jakintzak hobeto eskuratzea ahalbidetzen digutenak, ez jakintza gehiago eskuratzea, baizik eta eraginkortasun handiagoz eskuratzea. Edozein ikasketa emozioekin komunikatu behar da.

Edozein emozio ahalbidetzen al du ikastea?

Emozioak bi ahoko armak dira. Beldurra ere emozioa da eta oinarritzkoa da, gainera. Gehiegizko beldurrak edo izuak, ordea, blokeatu egiten gaitu. Baina beldur sotil hori, “barregarri geratuko naiz”, “zigortu egingo naute”, “sinpleki ez zait ondo aterako”... beldur sotil hori estimulu ona izan daiteke ikasketarako. Horrekin ez dut beldurra estrategia pedagogiko gisara defenditu nahi, inondik inora. Jakintzak beldur sentipenez eskuratzen dituen pertsonaren garunak ikastea beldurraren deserosotasunarekin lotzen du. Eta deserosotasun hori sentitzea inori ez zaionez gustatzen, inork ikastera behartzen ez duenean, pertsona horrek ez ditu gauza berriak ikasi nahiko.

Eta zein dira ikasten jarraitzeko gogoak estimulatzen duten emozioak?

Bat aipatu dut, konfiantza, alaitasuna. Baina ez da nahikoa. Alaitasuna ez da hain estimulu bizia, beldurrak baino indar gutxiago dauka. Gure garuna dinamikotasun handiagoz aktibatzen duen beste emozio bat behar dugu.

Emozio hori harridura da. Harridura da gure ingurunean zerbait berria sumatzen dugunean sortzen den emozioa. Gure ikasleak harritzeko modu asko daude, adinaren, mailaren edota eskaintzen ari garenaren arabera: erritmo aldaketa bat, ustekabeko egoera bat, umore-senak ere beti sortzen ditu sorpresak, txutxumutxuek...

Zergatik da garrantzitsua harridura sortzea?

Harridura garrantzitsua da amigdaletan sortzen delako. Ez du beldurrak bezalako adrenalina deskargarik eragiten, baina garunaren barnean talamo deitutako eremua aktibatzen du. Talamo arreta-gunea da, eta arreta oso garrantzitsua da gaur eta hemen ikasteko. Baina horrez gain, garunaren beste atal batzuekin batera, talamoak motibazioaren zirkuituetan eragiten du. Eta motibazioa oso garrantzitsua da bizitzan zehar ikasten jarraitzeko. Gainera, motibazioak garunari aparteko energia ekarpena eragiten dio beti, glukosa eta oxigeno eran. Horrek ahalbidetzen dio nekatu gabe denbora gehiagoz aritzea, erregai gehiago duenez, eraginkortasun handiagoz funtzionatzen dugu motibatuta gaudenean.

Motibazioa oinarritzkoa izango da aurrera egiteko?

Motibazioa ezinbestekoa dugu bizirauteko. Motibazioak aurrera egitea bultzatzen du, gauza berriak egitea. Motibaziorik gabe gauden tokian geratuko ginatke. Ezinbestekoa denez, garunak plazer eta ongizate sentsazioekin saritzen du. Motibatuta gaudela zerbait egiten dugunean, hain ondo ateratzen ez bazaigu ere, zoriontsuago edo sarituago sentitzen gara, zerbait behartuta edo obligazioz egiten dugunean baino. Ikasketak eraginkorragoak izatea nahi baldin badugu, motibaziotik eratorritako plazer horretan lagundu behar dugu.

Eta nola motibatu ditzake irakasleak bere ikasleak?

Modu batzuk aipatu ditugu: sorpresa edota atentzioan zentratutako prozesu

ezberdinen bidez, adibidez. Baina bada beste bat: gure ikasleek ikastea nahi baldin badugu, guk ere beraiekin ikastea desio behar dugu. Nola motibatu ditzakegu? Gu motibatuta egonez. Nola transmitituko diegu ikasteko gogo? Guk ere ikasi nahi izanda. Sinpleki, prozesu neuronal bati erantzuten dio horrek. Garunaren barnean neurona-ispilu deitutako neurona kopuru bat daukagu. Neurona horiek, ekintza bat egiten dugunean aktibatzen zaizkigunak bezalaxe, ekintza beste pertsona batek egiten duenean aktibatzen zaizkigu. Motibatuta dagoen pertsona bat ikusten dut, eta ni ere motibatu egiten naiz. Ez naiz bat-batean motibatuko, baina motibazioaren zirkuituak aktibatzen zaizkit, eta momentu horretan zerbait interesgarria eskaintzen badit, metodologia erakargarri batekin, lehendabiziko oztopoa, zailena, gainditu egingo dut, eta motibatu egingo naiz. Ikasleek gure bitartez bizitzen dituzte beraien esperientzia propioak. Ispiluen fokuak gara. Beraiek ikusten gaituzte, sumatzen gaituzte, eta imitatuko gaituzte. Jakinda beste eredu sozial batzuk ere imitatuko dituztela; familiakoak imitatzen dituzte, gurasoak... eta guztiak beti norabide berean ez goazela kontuan izanda.

Ariketa fisikoaren edota psikomotritzitatearen garrantzia azpimarratzen dituzu adimenaren alderdi guztiak elikatzen dituztelako. Argudio hori sakondu al dezakezu? Garunaren barnean, ariketa fisikoa, kontrol motorea, ikasketak eta kognizioa lotuta daude. Giharrak lantzeak garunak hobeto eta gehiago ikastea ahalbidetzen du, neuronen arteko plastizitatea lantzen duelako. Gainera, kirolak estresa gutxitzen du, estresarekin lortzen diren kortisol deitutako molekulak suntsitzen baititu.

Garunaren plastizitate hori lantzeko ba al da beste modurik? Meditazioak, yogak, taichiak edota mindfulness bezalako praktikek ere garunearan modu beretsuan eragiten dute. Estresa gutxitzen dute, enpatia handitu, sozialitate, eta neuronen

arteko plastizitatea handitzen dute. Baina baita erlaxatuta eguzkia nola ezkututzen den ikusten egotea, edota zuhaitz baten hostoak haizearekin nola mugitzen diren behatzea, horiek ere efektu berdina eragiten dute garunearan. Musika eta dantza ere erabili ditzakegu. Musikak ere plastizitatea handitzen du, eta gainera, emozioei lotutako eremuetan eragitearekin batera, gorputzaren kontrolari lotutako eremuak lantzen ditu modu zuzenean.

Zoriontasuna aipatu duzu, planifikazio-gaitasunari, norbere erabakiak hartzeari, ikasten jarraitzeari lotuta.

Eboluzioaren ikuspegitik, gizakioi bekokia modu bertikalean garatu zaigu, eta garrantzitsua da horri erreparatzea, garai bateko gizakiak ez zeukalako egun daukagun bekokiaren dimentsioa. Lobulu frontal eta aurre-frontalak kokatzen dira eremu horretan, eta oso garrantzitsuak dira, gizaki egiten gaituztenak direlako. Eremu horretan kudeatzen dira etorkizunei buruz egiten ditugun hausnarketak. Hartzen ditugun erabaki gehienak emozionalak izaten dira, bulkadek eragindakoak, baina eremu honek ahalbidetzen digu erabaki hausnartuak eta arrazoizkoak hartzea. Hori egiteko gai garen espezie bakarra gara eta oso garrantzitsua da, neurozientzia kognitiboaren barnean kokatzen den *Bizitza Arrakasta* kontzeptuarekin oso lotuta dagoelako. *Bizitza Arrakasta* ez da estrapolagarria, bakoitzak berea dauka eta ondo sentitzearekin dauka zerikusia: ondo sentitzen naiz naizen bezalakoa izanda, ondo sentitzen naiz egiten dudanarekin, ondo sentitzen naiz ondoan ditudanekin. Baina ondo sentitze moldaeraz bat da. Ondo sentitze proaktibo eta transformatzaile bat da. Ingurua aldatzen doanez, eta ni ez banaiz aldatzen ondo sentitzeari utziko diot. Horregatik, ondo sentitze aktibo bat da, aldatetako bultzatzen dituen gutxienez lehen bezain ondo jarraitzeko eta ahal bada hobetzeko.

Garunaren zein funtzio eragiten dute *Bizitza Arrakasta*-n? Askotan ikertu izan da eta badakigu

“Haurrek ez dute jolasten ondo pasatze hutsagatik: haurrek ikasteko jolasten dute. Jolasak beren ingurune fisiko zein sozialarekin erlazionatzea ahalbidetzen die, eta horietan beraien portaera bideratzeko aukera ere bai”

inteligentziak ez daukala zerikusirik *Bizitza Arrakasta*-rekin. Inteligentzia handia eduki dezakezu eta *Bizitza Arrakasta* txikia, edota inteligentzia txikia eta *Bizitza Arrakasta* handia. Zentzu horretan, garunaren gaitasunekin elkarreragina duena funtzio exekutiboaren kontrola da. Funtzio exekutiboek honakoa barnebiltzen dute: planifikazioa, hausnarketa, zeure erabakiak hartzea, eta jakitea nola egokitu zure jokabidea hausnarketaren bidez etorkizunerako egin dituzun plan horiek lortzeko. Gure ikasleekin landu beharko genukeen zerbait da.

Neurozientzia, psikologia, pedagogia, filosofia... Hainbat arlotatik, profesionalak hezkuntzaren gainean ildo berean lanean zabiltzatela dirudi. Jakina, garuna bakarra da. Arlo desberdinetan lanean ari garenek ez badugu bat egiten, punturen batean okertu garelako izango da, edo norbait edo guztiok. Baina inor ez bada okertu, guztiok bat egin beharko genuke. Askotan gertatzen dena da hiztegi desberdinak erabiltzen ditugula, eta badirudi ez dugula bat egiten, baina sakonean bat egiten dugu.

ESPERIENTZIAK

'ZERGATIK EZ DUGU EGITEN?' UNITATE DIDAKTIKOA

Hizkuntzaren alderdi soziala lantzeari ere garrantzia emanez

Barakaldoko Berritzegunean elkartzen diren ikastetxeetako hizkuntza-normalkuntzako teknikariek ikasgeletan lantzeko material berria prestatu dute. Hain zuzen, euskararen alderdi soziala lantzeko helburuarekin sortu dute DBHrako 'Zergatik ez dugu egiten?' unitate didaktikoa. Metodologia aktibo bat erabilia, bi zeregin izango dituzte ikasleek: euskararen egoerari buruz hausnartzea, batetik, eta euskararen erabilera sustatzeko eslogan batzuk sortzea, bestetik.

Barakaldoko Berritzegunean elkartzen diren hizkuntza-normalkuntzako arduradunen kezka batetik abiatuta, unitate didaktiko bat sortu eta landu dute herriko ikastetxeetan. Guruzne Arregi Minas Institutuko irakasleak kontatzen duenez, Berritzegunean elkartzen diren hizkuntza-normalkuntzako arduradunek kezka bat zeukaten: "Askotan aritzen gara lan eta lan ekintza berriak prestatzen, baina gero gure ikastetxetara joaten garenean, beste hainbat zeregin izaten ditugulako, sarritan beti presaka ibili behar izaten dugu. Ikastetxeko jai antolatzailak edo dinamizatzaileak ginen sentazioa geneukan. Gure zeregina horretara bakarrik ez dela mugatzen uste dugu, eta horregatik erabaki genuen zerbait egin behar genuela egoera aldatzeko. Materiala sortu behar genuela, ikastetxetara eramateko, eskolan lantzeko, eta modu horretan erabaki genuen unitate didaktiko hau sortzea".

Bigarren Hezkuntzarako prestatu dute *Zergatik ez dugu egiten?* unitate

didaktikoa, zehazki lehen eta bigarren DBHn lantzeko. Arazo-egoera batean oinarritu dira unitatea diseinatzeko orduan, eta hain zuzen, euskararen erabilerearen arazoari erreparatu diote. Arregik aipatzen duenez, "hizkuntza-arloan askotan edukiak lantzen ditugu, gramatika, literatura, gaitasunak... Baina hizkuntzaren alderdi sozialari behar besteko garrantzirik ez zaiola ematen uste dugu". Bere ustez dimentsio sozial hori lantzea kontzeptuak edota gaitasunak lantzea bezain garrantzitsua da: "Ikasleekin motibazioa lantzea, dituzten aurreiritzi linguistikoak ezagutzea, eta horrekin batera dituzten hizkuntza jarrerak ere kontuan hartzea. Hori guztia landu beharrekoa dela pentsatzen dugu".

Barakaldoko ikasleak izan dira unitate didaktiko honetako protagonistak. Irakasleak zehazten duenez, bai sare publikoko ikasleak, bai sare kontzertatuko ikasleak. Guztira herriko hamar ikastetxetan egin dute lanketa, eta metodologia aktibo bat erabilia ikasleek bi zeregin nagusi



izan dituzte: "Alde batetik, euskararen egoeraren gainean hausnartzea, eta bestetik, euskararen erabilera sustatzeko esloganak sortzea".




Tribuaren berbak egitasmoaren bigarren sekuentzia didaktikoa hartu dute oinarri unitatea diseinatzeko orduan. Hizkuntza-normalkuntzako teknikariaren esanetan, sekuentzia

didaktiko horretatik oinarritzkoena hartu eta lau saiotarako proposamena egin dute. Modu horretan, bi helburu nagusi ditu *Zergatik ez dugu egiten?* unitate didaktikoak: “Alde batetik, ikasleek ikuspegi kritiko bat garatuz haien errealitate soziolinguistikoa ezagutzea da helburuetako bat. Horretarako, ikus-entzunezko baliabideak erabili ditugu eta ikasleek euren iritzia elkartrukatu dituzte, eztabaiden bidez. Bestetik, euskararen erabileran eragiten duten faktore garrantzitsuenak ezagutzea da bigarren helburu nagusia. Baina ezagutzeaz harago, ikasleek ere euskararen erabileran eragiten dutela eta haiek ere aldaketak egin ahal dituztela ohartaraztea nahi genuen”.

Metodologia zehazteko garaian, arazo-egoera batetik abiatu ziren: euskararen erabilera ezaren arazotik, hain zuzen ere. Hortik abiatuta, pentsamendu errutinak eta pentsamendu trebeziak landu dituzte ikasleekin. Modu horretan plazaratu dituzte ikasleek beraien ideiak eta horien gainean lan kooperatiboa oinarri hartuta egin dute aurrera. Konpetentzietan dagokionez, berriz, Heziberrin zehazten diren honako oinarritzko zehar konpetentziak landu dituzte: hitzezko, hitz gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia; komunikatzen jakitearena; eta horrekin batera, norberaren autonomiarako konpetentzia; izaten jakiteari lotutakoa. Oinarritzko diziplina barneko konpetentzietan dagokionez, berriz, hizkuntza eta literatura-komunikaziorako konpetentzia izan da jorratu dutena.

Lau saioen dinamika

Unitate didaktikoa lantzeko orotara lau saio proposatu zituzten. Lehendabiziko saioa hasteko *Tribuaren Berbak* egitasmoko bideo bat erabili zuten. “Bideo horretan Kike Amonarriz agertzen da hiru gazterekin solasean eta mota honetako galderak egiten dizkie: Zuek non ikasi duzue euskara? Zein neurritan egiten duzue? Sare sozialetan zein hizkuntza erabiltzen duzue? Zein, irrati eta telebista entzutean edo ikustean? Ikasleei



bideoa ikusi ondoren pentsamendu trebezia bat planteatzen genien. Hau da, galdera horiei erantzutea eta ikustea zer-nolako antzekotasunak edo desberdintasunak dauden gela barruko ikasleen artean”, kontatzen du Arregik.

Lehen saio horretatik ikasleek ateratako ondorioak aintzat hartuta, eurek ere euskararen erabilerarekin arazo bat zegoela onartzen zutela dio irakasleak; Barakaldo bezalako herri batean, kasu gehienetan, eskolan baino ez dute euskara erabiltzen.

Arazo-egoera horretatik abiatuta proposatu zieten euskararen erabilera sustatzeko esloganak sortzea. Hain zuzen, bigarren saioan eslogan baten ezaugarrietan sakontzeko aukera izan zuten ikasleek. Horretarako esloganen inguruko ikus-entzunezko baliabideak erabili zituzten eta modu horretan landu zuten eslogan on batek izan beharreko ezaugarriak zein diren. Ondoren, ikasleek ahozko azalpen bat egin zuten eslogan eraginkorrek dituzten ezaugarriak birpasatuz.

Hirugarren saioan, euskararen erabileran gehiago sakontzeko helburuarekin, bi bideo ikusi zituzten. Lehengoan, euskaraz egiteko baldintzen ingurukoan, lau baldintza ekarri ditu gogora irakasleak: “Alde batetik, euskaraz jakitea da lehendabiziko baldintza euskaraz hitz egiteko; bigarrenik, beste pertsonak ere euskara jakitea komunikazioa bermatzeko; hirugarrena beste pertsona hori euskaraz hitz egiteko gai dela jakitea; eta

laugarrena eta azkena, nahi izatea”. Bideo horren jarraian bigarren bideo bat landu zuten. Euskaraz ez egiteko arrazoiengatik inguruan hitz egiten dute Kike Amonarriz eta Juanjo Aiurrek bideo horretan eta ikasleei arrazoi horien inguruan gogoeta egiteko ariketa bat proposatu zieten: bakoitzak euskaraz ez egiteko hiruna arrazoi idatzi behar zituen, eta ondoren, sailkatu gaitasuna, motibazioa, ohiturak eta inguruaren arabera. Sailkapen horretatik abiatuta eta ateratako ondorioak partekatuz, ahozko aurkezpenak egin zituzten ikasleek. “Horretatik guztitik joan ziren ateratzen esloganerako ideiak”, dio Arregik.

Laugarren eta azkeneko saiorako gorde zuten esloganak sortzeko jardura. Unitate didaktikoa Barakaldoko DBHko ikastetxe guztietan landu dutenez, “esloganen zerrenda itzela” osatu dutela aipatzen du Minas Institutuko irakasleak. Hauek dira adibide batzuk: *Jalgi hadi euskarara; Komitxigua, etorri paka, euskaraz hitz egitera; Orain animatu gero ez damutzeko; Euskara? Gaztelania? Eustelania!; Hara hara hara, gu euskara gara; Euskara ikasi bizitza hasi; Eti eti eti euskaraz hitz egin beti; Euskara ez da betebeharra, gure nortasuna baizik...*

Esloganak idatzi ondoren, Barakaldoko ikastetxeetako leku esanguratsuenetan ipini zituzten, euskararen erabileraren pizgarri izateko asmotan. Erabileraren arazoa gainditu nahi bada, eta ikasleek eurek sortutakoa hizpide hartuta, *hobe orain animatu, gero ez damutzeko*.

EKARPENAK 1

'TXIKITAKO BELDURRAK' JARDUNALDIAK

Posible al da eskolan beldur barik bizitzea?

Galdera hori egin zuen Alexander Barandiaran Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakasleak azaroan Hik Hasik antolaturik egin ziren 'Txikitako Beldurrak' jardunaldietan. Myrtha Chokler, Jon Arana eta Katty Homar izan ziren beste hizlariak.

Ez, ezin da beldur barik bizi eskolan. Ezin da beldur barik bizi, ez eskolan, ez etxean eta ezta kalean ere. Eta, gainera, ez da komeni. Horra, labur-labur Alexander Barandiaranek azaroan Hik Hasik antolaturiko *Txikitako Beldurrak* jardunaldietan egin zuen hitzaldiko ideia nagusia. “Beldurra bizirauteko gaitasun bat da, berezkoa da eta bizitza guztian ondoan egongo da; belaunaldiz belaunaldi heredatu egiten dugu, eta horri esker iraun ahal izan dugu gaur arte”. Beraz, beldurrari esker bagara. Gizakia beldurrari esker da gizaki; izan ere, atxikimendua, esplorazioa edo eraso bezala, beldurra bizirauteko estrategia ebolutibo bat da. “Baina beldurra desaktibatu egin behar da, ez badago desaktibatuz ezin gara beste ezein ekintzatan murgildu”.

Beldurrak bizi ditu haurrak eskolan, baina eskolan irakaslearen izuak eta gurasoen ikarak ere bizi dira. Elkarren ondoan bizi dira beldurrak: “Eta gure umea ez bada beste umeekin ondo moldatzen?”; “eta jotzen badute?”; “eta bazterten badute?”; “eta negarrez pasatzen badu eguna edo ez badu ondo pasatzen?”; “eta gure haurra ez bada kapaz



Alexander Barandiaran, Katty Homar, Myrtha Chokler eta Jon Arana Donostiako saioaren ostean.

eskatzen diotena ikasteko?”; “eta gurasoak etortzen bazaizkit kontuak eskatzera?”; “eta gustatzen ez bazaie egiten dudana?”; “eta haurrak elkar joka hasten badira?”; “eta umeak aztoratzen bazaizkit eta kontrola galtzen badute eta ez badakit zer egin?”; “eta beste irakasleak jabetzen badira gelan egiten dudana?”; eta pentsatzen badute ez naizela irakasle

ona?”; “Eta...”

Beldurrekin bizitzen ikasi behar dugu, baita eskolan ere. Baina beldurrei neurria hartzen ere ikasi behar dugu, gainditzen eta desaktibatzen, bizitzan (eskolan) aurrera egin ahal izateko. Hezitzaile garen aldetik, batez ere haurren beldurrak aurreikusten eta beldur horiei aurrea hartzen saiatu behar dugu. Horra Alexander

Barandiaran MUko HUHEZiko irakasleak, Myrtha Chokler psikomotrizista argentinarra, Jon Arana Kiribil kabineteko psikomotrizista eta psikologoak eta Katty Homar psikomotrizista katalanak *Txikitako beldurrak* jardunaldietan azaldu zituzten ondorioetako batzuk.

Beldurra beharrezkoa dugu, eta baditu konnotazio positiboak. Jon Aranak aipatu zituen beldurraren aurpegi on batzuk: “Antropologiaren ikuspuntutik, beldurrak zentzu sozial bat dauka, beldurraren ñabardura batzuk interesgarriak dira erlazio sozialak arautzeko, adibidez, lotsa, errudun sentimendua... Psikologiaren ikuspuntutik, gure portaeraren garapenean eragina dauka beldurrak”. Baina izuak aurpegi iluna dauka, ugariak dira beldurraren ñabardura negatiboak; “torturatu baino ez gaituztela egiten sentitzen dugu — azaldu zuen Aranak —, absurdoak direlako edo larregizkoak direlako eta beren jatorria ulertzen ez dugulako edo gainditu ezin ditugulako.”

Beldurrak eta beldurrak daude. Ikara batzuk lagungarriak dira, eraikitzaileak, baina beste ikara batzuk suntsigarriak dira. Beldurrak hor daude, beraz, baina zer eduki behar du kontuan irakasleak eskolako testuinguruan, beldur hori haurrentzat ez dadin kaltegarri izan? Haurren garapenean, sozializazioan eta ikasketa-prozesuan oztupo egin ez dezaten, nola kudeatu ditzake hezitzaileak haurren beldurrak? Hizlari guztiak izan zuten eskolako testuingurua hizpide hainbat unetan, eta bi eremutan bil daitezke adituek esan zituztenak: batetik, ohartarazi zuten haurren garapen-prozesua bera zaila dela, eta ondo zaindu behar dela, haurrari beldur berriak ez eragiteko. Eta, bestetik, hainbat estimulak haurra beldurtu egin dezaketenez, nabarmendu zuten hizlariak hezitzaileak izuen prebentzioa eta kudeaketa presente izan behar dituela.

Zaindu haurra, zaindu giroa, zaindu materialak...

Beldurra pertsonaren garapenarekin loturik dago, Barandiaranek azaldu zuenez, eta zortzigarren hilabetean



aktibatzen da izua. Etapa goiztiarrean garatzen diren izuak *beldur arkaikoak* dira, Aranak azaldu zuenez, eta horiek gorputzari loturikoak eta atxikimendu-figurari loturiko ikarak izaten dira: gorputzaren galera-sentsazioetik eratorriak eta atxikimendu-figuraren galeratik eta abandonotik eratorriak, hain zuzen ere. Gorputzaren galera-sentsazioetik erator litezkeen beldurrak saihesteko, haur txikiaren gorputza ondo zaintzeko deia egin zien Aranak hezitzaileei, bereziki 0-3 urte bitarteko etapen: “Umeak bere gorputz-sentsazio guztiak erregistratu egiten ditu: gosea, gosearen mina eta asebetetzearen lasaitasuna; gorputza hustea; hotza, beroa; etzana egotea, edo altxatua izatea... Gorputz-sentsazio horietako batzuk atseginak dira, beste batzuk ez hainbeste; eta beste batzuk mingarriak dira, eta umearen gorputzak erregistratu egiten ditu, eta gorputzean loturik gelditzen dira”. Haur txikiaren gorputza zaintzeko, Emmi Piklerren lan-ildoari jarraitzea gomendatu zuen Aranak.

Piklerrek Loczy institutuan garatu zuen mugimendu autonomo librearen pedagogia, eta zaintzen koreografiak bikain ezagutzen ditu Choklerrek; Aranari jarraiki, 0-3 urteko etapa horretan haurrak bere *Nia* eraikitzeko prozesua zeinen gogorra den nabarmendu zien hezitzaileei: “Guk helduok ezingo genuke motxila hori zamatuta”. Haur txikiaren ekinean oztoporik ez jartzeko eskatu zien

hezitzaileei: “Bilatu gabe ere bizitzak beldurrak ekarriko dizkio haurrari; ez diezazkiogun, bada, guk beldur gehiago ezarri bidean”. Niaren eraikuntza-prozesuan lanean ari den haur txikiari bere buruarengan segurtasun eta egonkortasun handiagoa eskainiko dion ingurunea, materialak eta helduak ezartzearen alde egin zuen Choklerrek: “Bere buruarengan segurtasuna eta egonkortasun handiagoa izateak eraikitzen ari den hori baieztatzen eta ziurtatzen lagunduko dio, eta abantaila handia izango da hori lan neketsu horretan”. Horren ondorioz, haur txikiak kontrolatu ezin dituen posturretan, jarreretan, egoeretan edo galeren aurrean jartzea haurraren Niaren eraikuntzaren kontra egitea litzateke.

Ez beldurtu haurra

Eraikuntza-prozesuan murgilduta dagoen haurra gehiago ez beldurtzeko eta prozesu horretan mesede egiteko, honako galdera hau egin behar dio behin eta berriro hezitzaileak bere buruari, Choklerren arabera: “Egingo dudan ekintza honek, aurkeztuko diodan material honek edo berarekin egongo den heldu esanguratsu honek haurrari bere *Nia* eraikitzen lagunduko dio ala oztupo izango da?”. Sostengua, segurtasuna, jarraikortasuna behar ditu haur txikiak: “Egoera arrotzek beldurtu egingo dute haurra — azaldu zuen psikomotrizistak —, eta horrek urrundu egingo du bere

EKARPENAK: 'TXIKITAKO BELDURRAK' JARDUNALDIAK

“Beldurraren prebentzioa egin behar da, baita ere, edozelako berrikuntza sartzen den unean; asko zaindu behar dira berrikuntza-uneak eskolan, eta zer esanik ez ikasturte berriaren hasiera”. Barandiaranek azaldu zuen eran, faktore berri asko sartzen baitira haurraren bizitzan: bakardadea, pertsona arrotzak, egoera berriak... “Ikasturte hasieran hezitzaileok daukagun erronka nagusia da ikasleak seguru senti daitezela eskolan. Horretan denbora asko inbertitu behar dugu, konfiantza eraikitzen ez badugu, beste guztiak ez dauka inolako zentzurik”.

Nia eraikitzeko behar duen segurtasunetik”.

Choklerrek aipatu bezala, egoera arrotzek, eta, oro har, berritasunek, beldurtu egin dezakete haurra eskolan. Berritasunak, Barandiaranek sakondu zuen eran, beldurra, jakin-mina edota eraso aktiba baititzake: “Haur Hezkuntzan berritasun bat sartzen dugunean —material berria, ekintza berria, ordezkoko pertsona berria...—, asko zaindu behar dugu haurra: umearen baretasuna eta segurtasuna oso kontuan izan behar ditugu, eta asko zaindu behar dugu une hori, bestela, jakin-mina aktibatu beharrean, beldurra aktiba baitezakegu”.

Ingurune ezegonkorrek beldurrak areagotzen ditu

Haur-eskola bateko 8, 9 eta 10 hilabeteko ume txikiak gelatina gorritz, horiz eta urdinez beteriko ontzietan sartu zituzten esperientzia bat kontatu zuen Choklerrek, eta argazkien bidez azaldu zuen haur txiki haiek ekintza berri harekin bizi izan zuten higuina eta beldurra. “Bere gorputzaren osotasuna esperimintatzen ari den haurarentzat ez da esperientzia atsegina material ezegonkorrek ukitzea. Beraz, ekintza edo material berri bat eskaini behar diozuenean, galdetu zeuen buruoi segurtasuna ala segurtasunik eza emango diozuen, mesede ala oztopo

egingo diogun haurrari” azaldu zuen Choklerrek. Gainera, haurren beldurrez gain, andereñoen ikara ere deskribatu zuen hizlariak: “Andereñoa frustratu egin zen planifikatu zuen ekintzak porrot egin zuelako. Baina nori begirako ekintzak dira halakoak?” galdetu zuen, erretorikoki, psikomotrizistak. “Niri, hezitzaile naizen aldetik, ekintza oso dibertigarria irudi dakidake agian mozorrotzea, edo material gelatinoso edo hauskorrek aurkeztea, baita jolas gisa haurra airera bota eta ondoren besarkatzea ere... baina, oreka menderatzen ez duen haurarentzat edo bere gorputza barreiatzen ari dela sentitzen duenarentzat, larritasun ikaragarria da galera hori guztia bizitzea, eta, haurrak behar dituen segurtasuna eta autonomia bultzatu beharrean, segurtasun falta eta helduarekiko mendekotasuna bultzatzen ari naiz”. Globoen eta antzeko material iragankorren ordezk, edo gelatina bezalako material ezegonkorren partez, material sendoagoen aldeko apustua egiten du Choklerrek. “Ikusi ahal izan genuen, haur horiexek, dispertsioaren aurrean halako larritasuna erakusten zuten haur horiek, hauskortasunaren eta gelatinaren aurrean beldurtzen ziren haur horiek, beste mota bateko materialekin, material gogor eta egonkorrekin nahiz



Katty Homarrek ipuinetako beldurrei buruz hitz egin zuen Donostian.



Jon Aranak beldur arkaiaren inguruko hitzaldia eskaini zuen. Irudian Bilboko hitzaldiaren une bat.

erreferentzia puntuak eskaintzen zizkieten materialekin oso eroso zeudela eta esploratzeko gogoz eta interes handiarekin murgildu zirela ekintzan... Ez ziren edozer gauzarekin beldurtzen ziren haurrak, ez zitzaizkien material guztiekien ikara aktibatzen, baizik eta gauza, ekintza eta material ezegonkorrekin beldurtzen ziren; hau da, proposamenak berak eragiten zien beldurra, eta materialak berak haur beldurti eta zaugarriago bilakatzen zituen”. Choklerrek ondorioztatu zuenez, haurari eskaintzen zaion ingurunea ezegonkorra denean, hauraren zaugarritasuna eta ezegonkortasuna aktibatu egiten dira; aldiz, haurrak objektu sendoagoak eta egonkorragoak dituenean eskura, bere barneko sendotasuna eta egonkortasuna proiektatzen ditu.

Hezitzaileak buruan izan behar luke, hizlariaren aburuz, ingurune hauskorra, dispertsoa eta ezegonkorra ingurune mehatxagarria dela haurarentzako, “eta gaur egun, kasu askotan, haurra ingurune mehatxagarrietan bizi da, eta nahasmena, desorientazioa, konfiantza gabezia eta larritasuna sortzen ditu inguruneak haur txikiarengan, eta haren gorputz-galera infinituaren eta abandonuaren aurreko beldurra suspertzen ditu”.

Choklerrek aurkeztu zuen gisako ekintzak egin aurretik, Barandiaranek proposatu zuen beldurraren prebentzioa egin behar duela hezitzaileak: “Horrek esan nahi du asko zaindu behar dugula hurrei eskaintzen diegun giroa, beldurra eman dezaketen estimuluek —bat-bateko soinu altuak, argi-ilunak...— saihestuz. Ziurtatu behar dugu umeari eskaintzen dizkiogun esperientziak ezin direla txarrak izan; eskolan bizitako esperientzia txar batek eskola, bere osotasunean, esperientzia beldurgarri bezala bizitzera eraman baitezake haurra”. Izan ere, izu batzuk estimulu naturalek eragiten dituzte —aipaturiko argi-ilunak, zaratak... — baina beste ikara batzuk ikasiak edo estimulu kulturek aktibatutakoak izaten dira, pertsona bakoitzak izandako esperientzia traumatikoen arabera.

Beldurraren prebentzioa egin behar da, baita ere, edozelako berrikuntza sartzen den unean; asko zaindu behar dira berrikuntza-uneak eskolan, eta zer esanik ez ikasturte berriaren hasiera, Barandiaranek azaldu zuen eran, faktore berri asko sartzen baitira hauraren bizitzan: bakardadea, pertsona arrotzak, egoera berriak... “Ikasturte hasieran hezitzaileok daukagun erronka nagusia da ikasleak seguru senti daitezela eskolan.

Horretan denbora asko inbertitu behar dugu, konfiantza eraikitzen ez badugu, beste guztiak ez dauka inolako zentzurik”.

Egokitzapena ongi egitearen garrantzia nabarmendu zuen irakasleak: “Eskolan haurra bakarrik geldituko da pertsona ezezagun batekin, zer aktibatuko da? Beldurra. Beraz, zaindu dezagun ongi une hori. Egokitzapena ez da ohitze-prozesu bat, segurtasuna esku batzuetatik besteetara pasatzen den unea da, familiako segurtasunetik eskolako segurtasunera. Horregatik zaindu behar dira hainbeste trantsizioak: egunerokoak, oporretakoak...”

Barandiaranek gogorarazi zuen, hezitzailea hauraren segurtasun-iturri izan ala ez, oso desberdina izango dela txikiaren jokaera: “Ez baditugu segurtasun-iturri gisa bizi, beldurtu egiten gara, eta larritasunean biziko gara eta ospa egin nahi izango dugu, beldurraekin ihes egiteko jokabidea aktibatzen baita gure gorputzean. Beraz, haurrak beldurturik eduki nahi ez baditugu, zaindu zein heldu eta nola sartzen ditugun eskolan; nola egiten dira ordezkapenak? Nola bizi du haurrak lehengo irakaslea ez egotea? Edo jangelakoak?” Jangelako eta sukaldeko langileak proiektuaren parte diren neurrian, eskolako pertsona guztien joan-etorriak zaindu



behar direla nabarmendu zuen Barandiaranek.

Aurreikusi ezin denean, kudeatu

Beldurra aurreikustea eta beldurrari aurrea hartzea da irakaslearen lehen egitekoa, Choklerren eta Barandiaranen arabera, baina aurreikusi ez delako edo ezin izan zaiolako aurrea hartu behin beldurra aktibatu denean, berori gaintitzen edo desaktibatzen lagundu behar du hezitzaileak, haurra egitasmoan murgil dadin. Barandiaranek funtsezkotzat jo zuen umearen beldur-jokabidea desaktibatuz egotea eskolan, “ez badao desaktibatuz, [haurri] aurkezten diogun edozein esperientzia berri ez zaio baliagarri izango, haurren lehentasuna beldurra desaktibatzea izango baita, eta ezingo du arretarik jarri beste edozein proposamenetan. Segurtasunik gabe sentitzen garenean, gure helburua, inkontzienteki, segurtasunera salto egitea da; seguru sentitzeko beharra oinarritzko beharra da. Beraz, beldurrekin segurtasun falta aktibatzen baldin bada, haur horren lehen helburua segurtasuna lortzea izango denez, beste guztia bigarren maila batera pasako da”. Beldurra desaktibatzen ez denean, larritasunean gelditzen gara, eta larritasun-egoeran dagoen haurrak ezin du ikasi, ezin du ongi pasatu.

Beldurra gaintitzeko hainbat errezeta eman zituzten hizlariak.

Barandiaranek eta Choklerrek heldu esanguratsuari egin zioten erreferentzia, eta eskolako testuinguruan hezitzailea da heldu esanguratsua: “Nola neutralizatzen dira beldurrak? —galdegin zuen Choklerrek— Ondoan egonda, esku emanda, abestuz, ipuina kontatuta, besarkatuta... lasaitasunaren bidez, seriotasuna, egonkortasuna eta atxikimendu-figurak eman dezakeen indarrarekin eta ingurune seguruak ematen duen sostenguekin neutralizatzen dira beldurrak”. Ideia horrekin bat egin zuen Barandiaranek ere: “Beldurra segurtasuna ematen duen pertsonarekin eta pertsona esanguratsuekin harremanetan jartzean desaktibatzen da”. Helduaren ardurari egin zion erreferentzia HUHEZIKO irakasleak: “Harremanaren eta heziketaren funtsera garamatza horrek, helduaren ardurara. Beldurren gaian ere ezinbestekoa da heldu arduratsua: kalitatezko kontaktua behar du haur txikiak heldu esanguratsuekin, haurrekin egon behar du, haren beldurra desaktibatzen dela ikusi arte. Behin desaktibatzean, zerbait interesgarria ikusten badu, orduan aktibatu daiteke beste jokabide bat, esplorazioarekin edo jolasarekin zerikusia duena”.

Hitza jarri izuei

Txikitako beldurrak desaktibatzeke, edo, gutxienez, ongi kudeatzeko,

beharrezkoa da izuak kanporatzea eta gorpuzten ez uztea. Beldurrak errekonozitzea eta hitza jartzea da beroriek gaintitzeko lehen urratsa, *Txikitako beldurrak* jardunaldiko hizlariak adierazi zuten. “Beldurrak ez dira ukatu behar —azaldu zuen Aranek—. Ezin ditugu alfombra azpian gorde. Beldurrak aitortu egin behar dira. Esplizitatu, hitzez ez bada jolasaren bidez”. Haurrek hitz egin dezaten, baina, helduok izan behar dugu eredu, Katty Homarrek nabarmendu zuenez: “Haurrek euren emozioez hitz egin dezaten nahi badugu, geuk eman behar dugu eredu, eta geure emozioez eta sentimenduez hitz egin behar dugu”.

Helduok ere bai baditugu beldurrak, eta horiek ere eskolan bizi dira. Horregatik, haurren beldurrak zaindu behar dira, lehendabizi, haurragatik, eta, ondoren, helduagatik. Choklerrek azaldu zuen eran, haurren beldurrak kontuan izan gabe prestatu den ekintza batean haurren izuak azaleratzen direnean, beldur horrek irakaslearengan ere eragin egiten du: “Haurren beldurrak eta espero gabeko haserre porrot sentazioa eragiten diote irakasleari, eta horrek askotan irakaslea blokeatu egiten du. Beraz, helduonagatik ere zaindu ditzagun haurren beldurrak”.

Mezu bat nabarmendu zen hizlarien ahotan: “Zaindu ditzagun haurrak”. Honela amaitu zuen Aranek bere jarduna: “Beldurrak bizi guztian izango ditugu bidelagun, baina txikitako beldurrak ondo kudeatzea heldutasunerako eta bizi osorako makulua izango da”. Eskolan beldurrak aurreikusteko deiarekin amaitu zuen Barandiaranek: “Aurreikusi eskoletan zer gerta daitekeen planteatzen ditugun esperientzia guztiekin. Haurtzaroko oso-oso fin zaindu behar dugu, ñabardura txikiak ere bai, haurtzaroko esperientziekin baldintzatu egiten baikaituzte. Eta eduki buruan beldurra, beldurra aktiba daitekeela haur batengan edo gehiagorengan. Eta aktibatzen baldin bada, helduok hor egon behar dugu, gogoratu, hori da hezitzaileon funtzio garrantzitsua: hor egotea”.

Ipuinean gordetzen dira izuak

Beldurrak, gaudituko badira, kanporatu egin behar direla adierazi zuten lau hizlariak, eta ipuina baliabide bikaina da beldurrak ezagutzeko eta gauditzen laguntzeko. Haurrak barnean dituen beldurrei forma ematen die otsoaren, munstroen, mamuen eta sorginaren bidez. “Gero eta beldur handiagoak, orduan eta munstro handiagoak”, azaldu zuen Katty Homarrek.

Maitagarrien ipuin klasikoak edo izuak ukitzen dituzten ipuinak kontatzea ez da, Aranaren hitzetan, haurrak beldurren aurrean jartzea: “Helduok ez ditugu ipuinetan figura mehatxagarriak sadismoagatik sartzen” zehaztu zuen. “Guk ematen diogu umeari helduleku bat bere beldur arkaiko eta inkontzientek irudikatzen, eta, egoera horretara iritsi direnean, dagoeneko sinbolo bat badaukate, eta sinboloekin jolas egin dezake, jan dezake, hil, birrindu... eta irabazi”.

Behin ipuina kontatutakoan, liburua itxi, eta han gelditzen dira izuak: “Haurrei galdetzen diet zergatik itxi behar dudan liburua —esan zuen Homarrek—, eta erantzuten didate hartara otsoa liburuaren barruan gelditzen dela eta han gelditzen bada ez dela gehiago euren ametsetan agertuko”.

Zer ipuin kontatu?

Ipuin bat edo beste bat aukeratzeko, Myrtha Choklerrek oinarritzko gomendio bat eman zien hezitzaileei eta gurasoei: “Galdetu behar diogu geure buruari zertarako eta zergatik kontatu nahi diegun ipuin hau haur hauei, eta zer helbururekin. 2 urteko haurrei hiru txerrikumeen ipuina kontatzea ba al du zentzurik, haurrek ez badute gaitasunik ipuinaren metafora ulertzeko?”

Ipuin bat kontatu aurretik, Choklerrek dio kontuan izan behar dugula haur bakoitzaren garapen-prozesua eta Niaren eraikuntza ez doazela erritmo berean, eta, era berean, ulertu behar dugula ume guztiek ez dituztela premia berdinak. “15-20 umeko gela batean guztiei ipuin bera kontatu nahi badiet, ulertu behar dut hori nire nahia eta premia dela, eta ez ume horiena”. Choklerrek proposatzen du ipuina kontatzen hastea, eta, hiru edo lau haur gerturatzen badira, haiei kontatzea. “Ipuinaren unea oso une berezia iruditzen zait, baina ez gela guztiari zuzenduriko ekintza bezala”.

Beldurrak ipuinen bidez irudikatu eta gaudituko ahal izateko, haurrek gai izan behar dute ipuinaren karga sinbolikoa ulertzeko; “garapen sinbolikoaren maila garrantzitsu batera iritsi behar du haurrak”

zehaztu zuen Choklerrek: “Ulertu behar du ipuineko txerrixoak ez direla osabaren baserriko txerriak”.

Hiru txerrikumeen ipuina da, izan ere, ipuinetan ipuin nagusia. “3 urteko gelan esperientzia handia dut, eta hau da gehien eskatzen duten ipuina”, esan zuen Homarrek. “Eta beti modu berean kontatu behar diegu, haurrak beldurra gauditzen joan ahal izateko”. Adituaren arabera, berezitasun bat du ipuin horrek maitagarrien ipuin tradizionalen aldean: “Ez da haurride txikia otsoa gauditzen duena, nagusia baizik”. Izan ere, Choklerrek aipatu zuen eran, “agian ez dira hiru txerri, agian bat bera da heldu bilakatu dena eta otsoa gaudituko duena”.

Noiz kontatu?

Hizlari guztiek nabarmendu zuten ipuinaren unea berezia dela eta ongi aukeratua izan behar dela. Aranek pista bat eman zuen: “Noiz sartu otsoaren, sorginaren edo mamuaren figura agertzen duten ipuinak? Guk ez baditugu sartzen, eurek aterako dituzte jolasetan eta, azkenean, helduko da adin bat non haur batek besteari jazarpena egingo dion, batak hartuko du otsoaren rola, eta hasiko dira jazarpen-jolas horretan; bada, une horretan prest daude ipuin horiek entzuteko”.

Noiz horrez gain, nola ere garrantzitsua da Homarrentzat: ipuinak goxatu gabe kontatu behar dira, beldurrak beldur izan daitezen eta gaudituko ahal izateko. Haatik, denborak eta moralak leundu egin ditu ipuinak, Grimm anaiek eta Perraultek deskribatzen zituzten izuetatik gaur arte. “Hainbeste edulkoratu ditugu ipuin tradizionalak, heriotza agertu ere ez da egiten, baina heriotza bizitzan agertu egiten da. Haurtzarora larritasunez eta beldurrez beteta dago, munstro bakarti, gautar biolentoz beteta, eta fantasiaren bidez lortzen dute haurrek katarsia eta beldurrak gauditzea”.



EKARPENAK 2

MOTXILADUN HAURRAK

Motxiladun haurrei erantzuna emateko tresna aurkeztu du Sarek, hezkuntza komunitate osoarentzat

Eskola inklusiboaren helburua haurren eskubideak errespetatzea eta guztien beharrei erantzutea da. Denei beso zabalik egitea harrera eta hitz egiteko eta parte hartzeko aukera bermatzea. Xede hori abiapuntu hartuta, motxiladun haurrak, bizi duten egoeratik, behar bereziak dituzten haurrak dira eta ondorioz, arreta berezia behar dutenak. Eskola komunitate osoaren erantzuna behar dute, eta horretan laguntzeko denon eskura jarri du euskal preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideen aldeko Sare elkarteak baliabide, proposamen eta erremintaz betetako kutxatxo bat.



Gaur gaurkoz 105 motxiladun haur daude Euskal Herrian.

Historia hasten da ume batek 1.700 km egin behar dituen ama, aita edo biak ikusteko. Umeekin zerikusirik ez duen kartzela politikak eragin zuzena duenean ume horiengan. Eta orduan hasten da historia, horrek ume horren bizitzako prozesu guztietan dauzkan inplikazioekin: eskolatzean, osasunean, gurasoekiko harremanean... Eskolatzea da Sare elkarteak landu duen gaia eta bi pedagogok egindako proposamen edo tresna bat jarri du hezitzaileen, irakasleen eta gurasoen eskura: *Motxiladun haurrak, hezkuntza inklusiboaren ikuspegitik hezkuntza premien inguruko analisi eta proposamenak* (www.sare.eus). Mariam Bilbatua Hezkuntza Zientzietan doktorea eta HUHEZIKo irakaslea

eta Esti Amenabarro Pedagogian lizentziatua eta EHUko Antropologia, Filosofia eta Hezkuntza fakultateko irakaslea dira egileak.

Bizi duten egoera dela-eta, behar bereziak dituzten haurrak dira gurasoak presondegian dituztenak, eta ondorioz, erantzun berezia eskatzen dutenak eskolatzeko garaian. Zentzu horretan, gaia politikatik atera eta haurren eskubideak azalarazi nahi izan dituzte. "Eskola inklusiboak ume guztien ongizatea bermatu behar du, eskolan babestuta sentitu behar dute. Eta horixe da guk egin dugun proposamenean eskatzen duguna. Eskola komunitateak aintzat har dezala ume horien egoera zein den eta zein behar dituzten. Eta gero, zehaztu ditzala zein pauso emango

dituen umeak entzunak izan daitezten eta babestuak senti daitezten. Guk lan hori egiten laguntzeko erreminta jarri dugu guztien eskura”, dio Mariam Bilbatua Hezkuntza Zientzietan Doktoreak eta HUHEZIKo irakasle ohiak.

Izan ere, horretarako beharra ikusi dute, eta hain zuzen ere behar horretatik sortu da tresna hau, Esti Amenabarro Pedagogian lizentziatua eta EHUko Antropologia, Filosofia eta Hezkuntza Falkultateko irakasleak kontatzen duenez: “Konturatu ginen ume hauek eskolara joaten direnean irakaslearen engaiamenduaren edo konpromisoaren arabera, nahiko erantzun desberdinak jasotzen zituztela: batzuetan lantzen zen gaia, beste batzuetan errealitate hori existituko ez balitz bezala jokatzeko zuten... Orduan, arreta dei bat egin nahi izan dugu: 'e! haur hauek beste haurrek bizi ez duten errealitate bat bizi dute eta arreta berezia behar dute'. Guk eskola ulertzeko modu jakin bat definitzen dugu, ikuspegi inklusi-boan oinarritua, eta zentzu horretan, aniztasunaren ikuspegi orokorretik, egoera hau beste bat gehiago da, eta erantzuna behar duena. Eskola zaintzeko esparru gisa definitzen dugu eta ume hauek eskolan zainduta egon behar dute. Eta zaintzeak esan nahi du aintzat hartzea gurasoa kartzelan egotea errealitate bat dela, hor dagoena, eta hori landuko duen hezitzailea eta hezkuntza komunitatea behar dituela haur horrek”.

Umeek behar duten arreta jasotzeko premia dute. Eta irakasleek arreta hori nola gauzatu jakitekoa. “Bai, behar hori ere antzematen genuen”, dio Amenabarrok. “Irakasleekin egon gara lan hau egiteko eta batek hala zioen: ‘Niri esan zidatenean ama kartzelan zuen ume bat izango nuela gelan, zer egingo dut ume honekin? pentsatu nuen’. Beste irakasle batzuk aipatu dute eraikitzen joan direla eta oso laguntza gutxi izan dutela eraikitzean. Beste batzuek diote gaiak hitz egiten hasitakoan ez zekitela noraino hitz egin, gehiegi ez zutela sartu nahi eta noraezean geratzen zirela. Denek aipatu dute irizpide eta ezagutza falta izan dutela gai hau lantzean. Kartzelari buruz ikuspegi natural batetik hitz egiteko erremintak falta dituztela azpimarratu dute”. Hala kontatzen zuen irakasle batek: “Lehen egunean eskolara etorri zenean ‘non bizi izan zara orain arte?’ galdetu zioten eta ‘kartzelan amatxorekin’ erantzun zuen. ‘Eta non bizi nahi duzu?’, ‘kartzelan amatxorekin; orain hemen nago ezin dudalako han egon’ erantzun zuen. Lau urte pasa dira ume horrek hori esan zuenetik, eta oraindik ere gauza bera esaten jarraitzen du. Nik irakasle gisa hori entzun nionean gai honetaz hitz egiteko beldurra kendu zidan. Zeren ni beldur nintzen, ez nekien noraino hitz egin nezakeen umearekin horretaz. Gainera, gure gizartean kartzela itsusia da, negatiboa, gaiztoak daude... eta horrekin

“Eskola inklusiboak ume guztien ongizatea bermatu behar du, eskolan babestuta sentitu behar dute denek”

Mariam Bilbatua

lotuta dauden kartzelaren inguruko kontaketek asko baldintzatzen dute ume hauen garapena. Haurtzat beraien ama edo aita ez da gaiztoa, guztiz kontrakoa. Beraien lotura afektibo-emozionalak bere horretan mantentzen dituzte”.

Hezitzaileez gain, gainerako gurasoek eta hezkuntza komunitate osoak baliabideak behar dituela azpimarratzen du Bilbatuak. “Eskola inklusiboak eta demokratikoak ari garenean, hezkuntza komunitate osoak ari gara. Komunitate osoak eskaini behar du gaiak hitz egiteko eta elkar ulertzeko aukera. Guretzat oso garrantzitsua izan da hezkuntza komunitateari tresna bat eskaintzea, gure hezkuntza sistemari daukagun erronka bat baita eta erantzuna eman behar baitiogu”.

Urruntasunak soka luzea dakar

Egileek bi oztopo nagusi antzematen dituzte haur hauen gizarteratzean: gurasoen urruntasuna eta eskolatzea eta gizarteratzea.

Gurasoekiko duten urruntasuna medio, ume hauek zailtasunak dituzte gurasoekin harreman normalizatu izateko. Kartzelan dagoen gurasoak ezin du eskolako sartu-irteeretan egon, adibidez. Bestetik, ume hauek 3 urte bete arte kartzelan daudenean amarekin, oso urrun egoten dira haien hezkuntza inguru egokitik eta haien familia zabaletik, eta ez daukate aukerarik kartzelatik ateratzen direnean haien gertuko testuinguru kulturala eta linguistikoa ezagutzeko. Deserrotze kulturala, soziala, familiarterko... eragiten ditu dispersioak. Eta horrek oztopatu egiten du 3 urte egindakoan Euskal Herrira etortzen direnean hemengo egokitapena.



Esti Amenabarro eta Mariam Bilbatua proposamenaren egileak.

EKARPENAK: MOTXILADUN HAURRAK

“Hona etortzen direnean haientzat arrotza den espazio batean aurkitzen dira eta eskolatz berri bat hasten dute. Identifikazio bakarra da bada- kitela gurasoekin lotura duen espazio bat dela eta horrek lasaitzen ditu”, gehitzen du Bilbatuak.

Urruntasunak bisitara joateko bidaia luzeak dakartza, eta horrek nekea. Eta nekearekin batera beste mota bateko sintomatologiak sortzen direla diote adituek, gero astelehen goizean eskolara joandakoan modu nabarmenean agertzen direnak.

Baliagarriak izan daitezkeen erremintak

Irakasleentzat, gurasoentzat eta eskola komunitate osoarentzat baliagarriak izan daitezkeen baliabideak topa daitezke lan honetan. Alde batetik zenbait irakasleren testigantzak biltzen dira. Eta, beste aldetik, *Bitakora kaiera* baliabide pedagogikoen kutxa ikus daiteke. Kutxa honetan ipuinekin, irudiekin eta beste hainbat euskarrarekin lantzeko proposamen didaktikoak planteatzen dira. Proposamen guztiek hasiera, garapena eta bukaera dute. “Baliabide horiek hautatu ditugu aukera ematen dutelako kartzelaz hitz egiteko, umeek modu ulergarrian irudikatzen kartzela zer den eta

arazo horiek umeengan sortzen dituzten emozioak ulertzeko”, azaltzen du Bilbatuak. “Funtsean espazioak zabaldu behar dira motxiladun umeek gai honetaz lasaitasunez hitz egiteko eta besteekin partekatzeko, entzunak direla sentitzeko, barruan daukatena eta haien bizipenak azaltzeko aukera izateko”.

Gaia lantzeko, egileek lagungarri eta argigarri izan daitezkeen irizpide batzuk ematen dituzte:

- Kartzelan dauden gurasoen presentzia bermatzea: eskolan kartzelan dauden gurasoen presentzia bermatu egin behar da haiekiko komunikazioa ahalik eta zabalena izanez; gutunak idatziz, urtebetetzeetan zerbait eginez eta abar.
- Ez saiatu kartzelako gurasoak ordezkatzeko, umearentzat haiek gurasoak izaten jarraitzen dute eta gainerakoek beste funtzio bat betetzen dute.
- Galdetzea eta gaia ateratzea: esate baterako, astelehenean bisita eginda datorrenean, zer moduz galdetzea. Kortesiako kontu bat da, baina umearentzat erreferentziazko pertsona den irakasleak gurasoaz ez galde- tzeak eragin kaltegarriak ekar ditzakeela diote adituek.

- Terminologia eta erabiltzen diren hitzak zaindu: erantzun desegokiak egon ez daitez, garrantzitsua da hitzak ondo zaintzea. “Esate baterako, kartzelan gaizkileak daudela esaten bada, ume batek gurasoa kartzelan baldin badu, mingarria izan daiteke esandako hori. Eta hurrengo galdera da ‘zergatik dago kartzelan?’. Beraz, landu daiteke nola hitz egiten den, zein hitz erabiltzen diren eta horren inguruan hausnartu.
- Kartzelaren inguruko kontaktuzunak aldatzea.
- Familiarekiko harremana zaintzea eta familiak daukan errelatoa errespetatzea kontraesanak saihesteko eta denek modu berean jokatzeko.

Hau abiapuntu bat baino ez da. Etorkizunera begira baliabide horietan sakontzen jarraitu nahi dute bultzatzaileek. “Beharra ikusita, formaziorako espazio bat sortu daitezkeela pentsatzen ari gara. Ume hauekin lan egin behar duten irakasleentzat eta hezkuntza komunitate osoarentzat espazio batzuk sortu nahi ditugu esperientziak partekatzeko, bidea egin dutenek bidea egiten hasten direnei transmititzeko”, diote Bilbatuak eta Amenabarrok.



Xua gurasoekin etxera!

Hik Hasiko kide Olatz Lasagabasterren eta haren bikotekide Patxi Urangaren alaba da Xua. Picassenteko espetxean daude hirurak, baina Xuak 3 urte egingo ditu urtarrilean eta Usurbilera etorriko da amonarekin bizitzera. Xua bere gurasoekin etxera etor dadila aldarrikatzeko elkartu gara Hik Hasiko kideak, eta elkartasuna erakusteko argazkia egin dugu.

Urtarrilaren 19an, Xuaren urtebetetze egunean, ekitaldi bat egingo da Donostiako Atano pilotalekuan 11:30an, eta bertara batuko gara Xua eta motxiladun haur guztiak gurasoekin etxean egon daitezela eskatzeko.

Xua Olatz eta Patxiarekin etxera!

Jaso urtean lau zenbaki,
20 €-ren truke

Hazi Hezi

haziera eta heziketa
aldizkaria



Hazi Hezi eta **hik hasi**
familia eta eskola
heziketari garrantzia ematen diogunon komunitatea

Harpidetzak:

hikhasi@hikhasi.eus • 943 37 14 08 • www.hikhasi.eus

GALDEIDAZU

LASARTE-ORIAN GAZTEEKIN EGINDAKO EUSKARALDIAK ZER EMAITZA IZAN DITU? NOLAKO ESPERIENTZIA IZAN DA?

Esperientzia honetan, honako galdera hauei erantzun nahi genien: nerabeekin Euskaraldia moduko ekimenak egitea egokia al da? Izan al dezake eraginik haien hizkuntza-ohituretan? Hori ikusi nahi izan genuen Oriarte institutuan egindako ekimenean

Erantzuna baiezkoa da, eta oso emaitza eta ondorio interesgarriak ikusi ditugu. Baina ezinbestekoa da lanketa behar bezala egitea: ez du balio besterik gabe helduei begirako Euskaraldian parte har dezaten gonbidapena egiteak. Kontuan hartu behar dira adin-tarte horren eta testuinguruaren ezaugarriak. Izan ere, emaitzak lor daitezten, ondo landu behar da gaia.

Belarriprest aktiboak, ahobizi eraginkorrak

Ekimena hau Lasarte-Orian egin da, Oriarte institutuko ikasleekin, zehazki, 12 urtetik 18ra bitarteko nerabeekin (DBHkoak eta Batxilergokoak). Batxilergoko ikasleek Euskal Herri mailako ekimenean parte har zezaketen, eta hori sustatu da; baina, horretaz gain, ekimenean parte hartzeko aukera eman zaie DBHkoei ere. Horretarako, ekimena beraien ezaugarrietara egokitu da, eta hasteko, debekuaren ideiarekin jokatu da: Zuek ezin duzue Euskaraldian parte



IÑAKI EIZMENDI

Euskararen erabileran eta transmisioan aditua



hartu. Zer iruditzen zaizue? Plan-teamendu lagungarria izan da gogoia pizteko eta ekimena abian jartzeko.

Hortik abiatuta, hiru ekimen antolatu ditu Lasarte-Oriak: gazte eragileen batzordeak antolatzea, sentsibilizazio-saioak egitea eta ekimena nerabeen ezaugarrietara egokitzea.

Behar-beharrezkoa iruditzen zitzaizgun ekimena egokitzea: gaur egun, Lasarte-Orian, nerabe batek *ahobizi* izatea hautatuko balu, euskaraz beti egin beharko luke inguruko gazte guztiekin, guztiek ulertzen baitute euskara. Baina, testuinguru soziolinguistikoa eta gaztelaniak gizartean duen indarra kontuan hartzen baditugu, hori “ezinezkoa” dela esan genezake, eta ardura hori presio handiegia da nerabeentzat. Beraz, *ahobiziek* beren rola betetzea eta arrakasta izatea oso zaila izango litzatekeela aurreikusi zen. Horren aurrean, zenbait neurri hartu ziren

- Batetik, parte hartu nahi zuten guztiei *belarriprest* izateko aukera eman zitzaien. Beraz, *ahobizi* izan nahi zutenek ere, lehendabizi, *belarriprest* moduan eman behar zuten izena. Gainera, Euskaraldiaren aurretik egin ziren sentsibilizazio-saioetan, *belarriprest* izateak zer esan nahi zuen landu zen, eta jarrera aktiboa proposatu zitzaien

nerabeei: *nik nahiko nuke hainbatek niri euskaraz gehiago egitea, eta hainbatek nahi dute nik haiei euskaraz gehiago egitea. Eroso sentitzen naizen neurrian, horretan ahaleginduko naiz.*

- **Ahobizi** izateko aukera Euskaraldia hasi baino egun batzuk lehenago eman zitzairen. Beraz, nahi zutenek *belarriprest* eta *ahobizi* izateko aukera izan zuten. Baina, *ahobizien* presioa arintzeari begira, gertuko harremanetan jarri genuen arreta. Harreman handia zuten kide batzuen izenak jarri zituzten, eta kide horiekin ez zuten erabat euskaraz egin behar. Horrela, *ahobiziak* beti euskaraz egiteko rola ez zen albo batera uzten, baina gazteei arreta biko harremanetan jartzeko aukera eman zitzairen. Bete-betean asmatu da horiekin, eta argi ikusi da emaitzetan eta ondorioetan horrela proposatzeak erantzun positiboak izan dituela.
- Azkenik, *ahobiziei* ardura egun batzuetara mugatzeko ahalegina egin nahi izan genuen. Hala, ardura 11 egunean izan beharrean, egun gutxiagoan izatea eta guztien artean txanda moduko batzuk antolatzea erabaki zen. Ezin izan genuen hori behar bezala bideratu, denbora eta baliabide aldetik ezin izan zelako gauzatu, baina, aurrera begira, kontuan hartzeko gai bat dela uste dugu.

Ekimena egokitu egin zenez, izen eta irudi berriak sortu ziren. Hau da: gazteen Euskaraldiak bere izena eta bere irudia izan ditu, bai eta txapa ere.

Sentsibilizazio-saioak eta gazte eragileen batzordeak

Oriarte institutuan Euskaraldian egindako ekimen honek argi utzi duen ondorioetako bat hauxe da: hainbat gazte gogoz daude, edo prest behintzat, euskara gehiago erabiltzeko, giroa egokia bada. Eta, are gehiago, hainbat gazte prest daude hizkuntza-ohituren inguruan modu aktiboan eragiteko.



Oriarte institutuan, 750 ikasle inguruk ikasten dute, eta horietatik % 60k eman zuen izena ekimenean. Gainera, bi batzorde osatu ziren gazte eragileekin, eta 70 nerabek eman zuten izena ekimenean laguntzeko. Bi datu horiek esanguratsuak dira, eta poztekoa da hainbat gazte prest egotea eragile izateko. Gazte horiek izan dira ekimena landu dutenak: girotze-lana egin, izen-ematea sustatu, eta abar.

Euskaraldiak arrakasta izateko, ezinbestekoa izan da gazte eragileen batzordeek egindako lana. Baina, horretaz gain, ikusi dugu gazteek hizkuntza-ohituren inguruan hausnartu dutela eta haiek duten edo izan dezaketen eraginaz konturatu direla.

Bestalde, sentsibilizazio-saioak egin dira institutuan Euskaraldiaren aurretik eta ondoren. Talde bakoitzean, lau saio egin dira: hiru Euskaraldiaren aurretik, eta bat ondoren. Guztira, 100 saio baino gehiago izan dira. Saio horiek beharrezkoak iruditzen zaizkigu gaia kokatzeko, izen-ematea sustatzeko, *belarripresten* rol aktiboa azpimarratzeko eta abarretarako.

Emaitzak eta ondorioak

Emaitzei dagokienaz, argi ikusi da Euskaraldiak eragina izan duela eta eragin hori bereziki biko harremanetan izan duela. Hau da: ahobizi moduan parte hartu dutenek esan dute Euskaraldian euskaraz asko egin dutela beste *ahobizi* eta

belarriprestekin; baina bereziki deigarriak dira datu hauek::

- Euskara ohi baino askoz gehiago erabili dutenak % 30 izan dira. Gehingoak erantzun du gehiago erabili duela, baina esanguratsua da askoz gehiago erabili duela diotenen kopurua..
- Biko harremanetan, % 15ek lortu du urrats bat baino gehiago egitea. Hainbat kideren izenak jarri zituzten, eta horietako bakoitzarekin euskara zenbat erabiltzen zuten zehaztu zuten. Guztira, 800 erantzun inguru bildu dira, eta horietatik 100 baino gehiagotan urratsak esanguratsuak izan dira: “ez dut euskaraz egiten” edo “euskaraz pixka bat egiten dut” egoeretatik “gehiena euskaraz egiten dut” edo “beti euskaraz egiten dut” egoeretara iragan dira.
- Gainera, ekimena amaitu eta berehala galdetu zitzaizkion, % 90ek uste zuen aldaketa horiei eustea lortuko zutela, eta, galdetegia handik hiru hilabetera pasatu ondoren, % 70ek erantzun zuen lortuko zela eustea. Beraz, aldaketak iraunkorrak dira.

Soilik *belarriprest* moduan aritu direnen datuak ere antzeko norabidekoak dira, apalagoak izan arren.

Emaitza horiez gain, hainbat ondorio interesgarri eta baliagarri jaso dira. Besteak beste:

- Gustura agertu dira lorpenekin: hainbatek urratsak egin dituzte, eta gustura daude egin izanarekin. Euskara gehiago

Gustura agertu dira lorpenekin: hainbatek urratsak egin dituzte, eta gustura daude egin izanarekin. Euskara gehiago erabili ahal izateko giro egokia aurkitu dute batzuek.

erabili ahal izateko giro egokia aurkitu dute batzuek, eta gustura aritu dira Euskaraldian: hizkuntza-ohituretan aldaketak izan dituztela ere ikusi dute, eta oso balorazio positiboa egin dute ekimenaz. Baina bi hutsune azpimarratu dituzte: batetik, ongi egin zen girotze-lana Euskaraldiaren aurretik, baina ez zen ezer egin Euskaraldian, eta horrek eragina izan duela diote. Beraz, girotze-lana hobeto egin izan balitz, emaitzak hobeak izango ziren. Bestetik, ekimenari jarraipena eman behar litzaiokeela uste dute: ikasturtean zehar gehiagotan eginez, edota Euskaraldia bera luzatuz -

- Helduen antzeko ondorioetara iritsi dira: 2016an, *ahobizi* eta *belarriprest* dinamika egin zen Lasarte-Orian helduekin, eta orduan ere, ikerketa-ekintza moduan bideratu zen. Helduek atera zituzten antzeko ondorioetara iritsi dira oraingoan nerabeak ere, besteak beste: gogoia esnatzeko balio izan die, talde sentitu dira, euskarari eustea ematen duen indarra bizi izan dute eta abar. Beraz: argi ikusten da nerabeak ere gai direla ekimenari behar bezala heltzeko, eta baliagarria dela haientzat.
- Zailtasunak nork bere azalean bizi izan ditu: konturatu dira norbaitek beti gaztelaniaz egiten badie zaila dela euskarari eustea, baina posible dela; halaber, ikusi

dute errazagoa dela euskarari eustea biko harremanetan talde-harremanetan baino, eta abar. Zailtasun horien aurrean, baliabide falta ere sumatu dute.

- Hizkuntza-ohituren inguruan hausnartu dute: ekimen praktikoa izan den arren, hizkuntza-ohituren inguruan hausnartzeko eta hainbat ondorioetara iristen laguntzeko balio izan die.

Herriko eragileen elkarlana eta testuinguru soziolinguistikoa

Nerabeen Euskaraldia ikerketa-ekintza moduan bideratu da Lasarte-Orian. Uste genuen Euskaraldia eraginkorra izan zitekeela nerabeen hizkuntza-ohiturei begira, baina ikusi genuen garrantzitsua zela lanketa hori ondo egitea eta informazioa behar bezala jasotzea ere.

Hori guztia bideratu ahal izateko, oso kontuan izan behar da Lasarte-Orian lehendik ere herriko eragileak elkarlanean ari direla: Oriarte institutuaren, Lasarte-Oriako Udalaren eta Ttakun Kultur Elkartearen arteko elkarlana aspalditik dator, eta hainbat egitasmotan gauzatzen da. Elkarlan hori behar-beharrezkoa da modu honetako ekimen bat bideratu ahal izateko: Institutua proiektuan inplikatu da, eta beste eragileei hainbat erraztasun eman behar izan dizkie ekimenak; Ttakuneko dinamizatzaileek gidatu dituzte sentsibilizazio-saioak eta gazte eragileen batzordeak, eta Udalak zuzenean parte hartu du erabakietan eta finantzazioan. Horretaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ere parte hartu dute, ekimena ikerketa-ekintza moduan egin ahal izateko eta landutako guztia argitaratu ahal izateko.

Bestalde, lanketa ondo egiteaz gain, uste dugu testuinguru soziolinguistikoa ere kontuan hartu behar dela, emaitzei eta ondorioei begira: testuingurua Lasarte-Oriakoa baino euskaldunagoa edo erdaldunagoa izateak eragina izango luke prozesuan eta emaitzetan. Ekimena egokitzean eta helburuak zehaztean, kontuan hartu beharko

litzateke testuinguru hori. Adibidez, zonaldea soziolinguistikoki euskaldunagoa denean, hizkuntza-ohituren bilakaeran urrats gutxiago egingo lirateke beharbada, baina gehiena edo guztia euskaraz egiten dutenen kopurua handiagoa izango litzateke. Hau da: bilakaera txikiagoa dela eman dezake, baina, berez, eraginkorragoa izan daiteke hizkuntza-ohiturak finkatzeari begira. Aldiz, zonaldea soziolinguistikoki erdaldunagoa bada, zailagoa izan daiteke ekimenak arrakasta handia izatea, eta are zailagoa hizkuntza-ohituretan benetako aldaketa esanguratsuak egitea. Baina, aldaketak txikiagoak izan arren, oso lorpen interesgarriak izan daitezke. Besteak beste: hainbat nerabe euskarara gehiago hurbiltzea, eta euskararekiko jarreretan eragitea bereziki; alegia, gazteak euskal komunitatera hurbiltzen dira, euskara asko erabili duten sententzia dute, eta euskara erabiltzeko ahalegina sentipen positiboekin lotzen dute. Beharbada, mereziko luke lorpen horiek neurtzea eta behar bezala baloratzea, benetako hizkuntza-ohituretan aldaketak esanguratsuak ez direnean ere.

Landutakoa argitaratzea eta aurrera begiratzea

Euskaraldian landutako hau guztia bi dokumentutan argitaratuko da: batean, oinarriak, emaitzak eta ondorioak jasoko dira, eta, bestean, ekimenerako landutako tresna guztiak jasoko dira, ekimena beste institutu edo herri batzuetan garatu nahi bada erabili ahal izateko. Aurrera begira, ekimen honekin jarraituko dugu Lasarte-Orian, eta garapena izango du. Beste hainbat institutu eta herritan ere egin ziren ekimenak nerabeekin, eta Oriarte institutuan egindako ekimen honetan landutakoa lagungarria izan daiteke beharbada beste hainbatentzat aurrera begira; baina, hasieran esan bezala, uste dugu behar-beharrezkoa dela gauza bat oso kontuan izatea: Euskaraldia eraginkorra izan daiteke nerabeen hizkuntza-ohituretan eragiteko, baina, emaitzak lortu nahi badira, ondo egin behar da lanketa.

ARGITALPENAK



ETXE HONETAN
Aintzane Usandizaga & Gaston

PAMIELA- KALANDRAKA

Etxean arauak jartzera ohituta dagoen aitatxi baten eta honen egunerokotasuna eta errutina hankaz goiti paratzera datorren ilobaren arteko harremana da gaia. Edonori ezagunak egin ahal zaizkigun egoerak bizitasunez kontatu eta marraztu dituzte autoreek, umore handiz eta irribarrea lehen minututik sorraraziz.



IRATXO THYSSEN-EN
Rafael Mendoza & Alba Vargas

SAURE

Iratxoa haserre esnatu eta bidaia bat egin behar du bere umore ona bilatzeko. Azkenean artea izango da bere irribarrea itzuliko diona, Juan Grisen artelan bat, hain zuzen ere. Madrileko Retiro-Prado kultura- eta natura-ingurunean kokaturiko komiki sail bateko lehenengo zenbakia da Saurek argitaratu duen hau.



ADISKIDEAK GARA?
Anabel Fernandez Rey

KALANDRAKA PAMIELA

Adiskideak gara? aurreirakurleei eta lehen irakurleei zuzendutako album bat da, ume baten eta hartz baten arteko adiskidetasunaren eraikuntzaz diharduena: printzipioz, bi pertsonaia oso desberdinak, baina osagarriak izan daitezkeenak elkarri lagunduz gero. Lan honen arte-ezagarri nagusia kolore eta pintzelkada leunak dira.



BENI ETA BELA
HELEM GRAIN, MARIONA CABASSA
Itzultzailea: MIREN AGUR MEABE

ELKAR

Untxi familia jator batek mindfulness praktikak konpartituko ditu irakurleekin, izan haurrak, gurasoak nahiz irakasleak. Hainbat teknika eta baliabide eskaintzen dira haurrak eguneroko bizimoduari beste era batera aurre egiten ohitzeko, gorputzari arreta jartzeko eta ez buruan sortzen zaienaren mende jokatzeko.



MAITASUNA POLITIKOA DA
Hainbat egile

JAKIN

Jakin aldizkariaren 233-234 zenbakiek udan egindako *Maitasuna politikoa* da jardunaldiak dituzte hizpide. Mari Luz Esteban, Oihane Ruiz, Irati Mogollon edo Jone Arrazolaren testuak jasotzen ditu, bestea beste. Horrez gain, Haritz Azurmendik Joxe Azurmendiren pentsamendua ardatz duen *Abertzaletasun kulturala* artikulua idatzi du egin duen tesian oinarrituz.



TRIKUA ESNATU DA
Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel

SUSA - LISIPE

Gaur eta hemen emakume izatea eta euskaldun izatea bazterreko izateko bide dira oraindik. Prestigioaren, pribilegioen eta eskubideen banaketak osatzen duen jendarteko botere sarean jokoan daude euskararen normalizazioa eta genero berdintasuna. Horrenbestez, euskalgintzaren eta feminismoaren arteko gurutzaketa eta aliantzarako bidea arakatzeko da liburu honetan.

PROPOSAMENA

Uharte Arte Garaikideko Zentroa

Arte garaikidea gelan sartzeko modua

Ez da museoa, ez da bisitan joateko lekua, ez baitago ezer ikusteko. Artea lantzeko toki bat da, artistentzako lan-lekua, lan artistikoak egiteko zentro bat, esperimentatzeko eta sortzeko toki bat. Horixe da Uharte Arte Garaikideko Zentroa. Berezitasun horrek, ikasleekin, irakasleekin eta ikastetxeekin lantzeko hainbat proiektu eskaintzen ditu.

Arte garaikideari estuki lotutako zentroa da Uhartekoa (Nafarroa), ekoizpen, esperimentazio eta ikerketa artistikorako zentroa. Komunitatearen esku jartzen ditu baliabide materialak, ekonomikoak eta heziketa aukerak. Esperimentazioa eta ikerketa sustatuz ezagutza sortzea bilatzen da: beste modu batera esanda, arte garaikidearen bitartez pentsatzeko eta hausnartzeko aukera ematea ikuspegi kritiko batetik eta testuinguru batetik abiatuta. Sormen-lanak egiteko lekua eskaintzen die zentroak artistei,



ikastetxeei, irakasleei eta ikasleei. Ikustera ez, egitera gonbidatzen ditu.

Ikasleentzako aukera anitz

Uharte Arte Garaikideko zentroak hezkuntzara zuzendutako eskaintza zabala du. Hasteko, ikasleei zuzendutako proiektuak ditu: A3, eskola lurraldea eta Uharteko ikastetxearentzako proposamen itxia. “Azken hori, Uhartaren gaudenez, bertakoei eskaintzen dieguna da. Gainerako biak –A3 eta Eskola Lurraldea– Nafarroako ikastetxe guztiei eskaintzen dizkiegu. Deialdiak egiten ditugu parte hartu

nahi dutenek izena eman dezaten eta hortik aukeratzen dira”.

Eskola Lurraldean ikastetxe osoak parte hartzea da baldintzetako bat, ez irakasle edo talde bakar batek, komunitate osoak baizik. Ikasturte osoko proiektu bat garatzeko 3.000 euroko dirulaguntza ematen du Uharte zentroak eta ikastetxea eta inguruko lurraldea lotzen dituen proiektua da garatu behar dena, betiere sormen garaikidearekin lotura duten prozesu eta hizkuntza garaikideak erabiliz. Uharte zentroak aholkularitza teknikoa eta kontzeptuala eskaintzen ditu

eta baita azpiegituretarako laguntza ere. “Proposamenarekin lotura eduki dezaketen artistak bilatzen ditugu, irakasleei behar duten formazio jakin bat eskaini eta abar. Iaz Lizarrako Remontival ikastetxeak *Iturriaren koloreak* izeneko proiektua garatu zuen. Aurten Burlatako Bigarren Hezkuntzako Amor de Dios ikastetxeari eman diogu dirulaguntza. Arkitektura publikoko proiektu bat egingo dute. Herriko espazio publikoak aztertuko dituzte eta eraldaketak proposatuko dituzte. Udalarekin eta herritarrekin batera ari dira proiektua garatzen, denen ideiak eta proposamenak jasoz”. 2020-2021 ikasturteko deialdian parte hartzeko, otsailean irekiko dute izen-ematea.

A3 proiektua, berriz, ez da ikastetxe osoari bideratutakoa, irakasleei baizik. Haur, Lehen zein Bigarren Hezkuntzako irakasleentzako da, beren eguneroko lanean arte garaikidearen ikuspegia txertatu nahi dutenentzat. Horrela, edozein delarik ere lantzen duten arloa, arte garaikidearekin lotura egiten da. “Lehen irakasle bakoitzarekin proiektu jakin bat egiten genuen; orain, berriz, guk egiten dugu proiektuen eskaintza eta horiek lantzen ditugu. Dena dela, norbaitek oso garbi baldin badauka zer landu nahi duen, hura aurrera eramateko aukera izaten du, noski”.

Eskaintzen dituzten proiektuen artean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako “Beste sorgin batzuk eta botere pertsonalak” izeneko proiektua daukate. Paula Duroren margoen bidez Latinoamerikako kulturetako sorginen inguruan pentsatzeko balio du eta “Quitapeñas” panpinak sortzen dituzte. Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetarako “Zer dira mugak?” proiektua daukate eta hor mugak zer diren eta zein muga mota dauden hausnartzen dute. Mugetatik abiatuta kontakizunak asmatu eta laburmetraia bat egiten dute. DBHko proiektu bat “Gure inguruko 1968” izeneko da. Urte horretako irudiak aztertzen dituzte Pariseko eta Woodstockeko errealtateekin konparatzeko. Post-argazkilaritzan aritzen dira eta collage lanak egiten dituzte “Zikinbrillista” manifestuaren aholkuak jarraituz. Horrekin bate-

ra hausnarketak ere egiten dituzte emakumearen paperaren inguruan, kulturartekotasunaren inguruan, ingurumenaren gainean eta egungo eta lehengo gizartearen drogen erabilaren inguruan.

Irakasle bakoitzak hiru saio izaten ditu: lehendabizikoan Uharteko hezitzailea ikastetxera joaten da eta proiektua aurkezten die ikasleei hainbat dinamiken bitartez: dialogikoak, plastikoak, ikusmenezkoa, gorputzaren bidezkoak... Bigarren saioan duen jakintzagatik, erabiltzen duen teknikagatik edo egiten ari den zerbaitegatik proiektuari ekarpena egin diezaiokeen pertsona bat gonbidatzen dute. Hortaz, Uharteko hezitzaileak eta artistak mintegi bat eskaintzen diete ikasleei, Uhartean edo ikastetxean. Eta hirugarren eta azken saioan amaiera ematen zaio. “Dena dela, prozesua beti irekita uzten da, irakasleak jarraipena emateko aukera izan dezan aurrerantzean ere”.

Irakasleei begirako formazioa

Irakasleei eskainitako formazioari garrantzi berezia ematen diote: “Guretzat oinarritzkoa da: ezin dugu eskolan ezer planteatu sustraiera jo gabe, eta sustraia irakasleen formazioa da”, azpimarratzen du Uharteko hezkuntza arduradunak. “Irakasleen formaziorik gabe ibilbide laburra edukiko du arte garaikideak eskoletan”.

Ikastaro hauek ILZrekin elkarlanean eskaintzen dituzte. Batzuk teorikoagoak izaten dira eta beste batzuk praktikoagoak. Teorikoetan Arte Hezkuntzak kultura-produkzio gisa duen esanahia jorratzen da, eta beraz, irakasleak kultura-eragile eta sortzaile gisa duten eragina. Ikastaro praktikoen irakasleek egunerokotasunean behar dituzten teknikak irakasten dira: igeltsuarekin moldeak egiten, silikonarekin, estanpatzeko teknikak...

Eskaintza hibridoa

Hirugarren hanka bat ere badu Uharteko hezkuntza eskaintzak, hibridoa deitzen diotena: **Vaca**. “Urtean sei arratsaldetan elkartzen gara irakasleekin eta arte garaikideko



Uharte Arte Garaikideko Zentroa

Kalbario 2
31620
Uharte, Nafarroa
Tel.: 948 361 457
www.centrouarte.es

Ikasleentzako hezkuntza jarduerak:

A3
Eskola lurraldea

Irakasleentzako ikastaroak:

- Flower Power: pedagogia feministatik abiatuz arte garaikidearekin egiteko gauzak
- Etxeko bideoklip bat nola egin

Hibridoa:

Vaca proiektua: 2019-2020an Gordina proiektua



gonbidatuekin. Egoerak sortzen ditugu eta irakasle parte-hartzaileei euren gelan proiektu bat garatzeko prestakuntza ematen diegu eta berau garatzeko laguntza eskaini”. Amaieran irakasleak eta haien ikasle guztiak Uhartean biltzen dira jardunaldi batean. “Irakasleek elkar ezagutzen dute, baina ikasleek ez eta oso polita izaten da sortzen den giroa: DBHko batzuk HHko txikiei euren proiektua esplikatzeko, urritasuna zuten ikasle talde bat DBHkoiei azaltzen... Oso sinergia interesgarriak sortzen dira”, Ojanguren dioenez.

ATZEKO ATETIK



LORATZEAZ

GARAZI ARRULA RUIZ ITZULTZAILEA

Julio Cortazarrek bi hilabete-ko literatura-ikastaroa eman zuen Berkeleyn (Kalifornia), 1980an, eta eskola horien transkripzioa liburu bihurtuta irakurri nuen duela zenbait urte. Sekulako hizketa-gaitasuna zuen argentinarrak; bereziki inbidiagarria egin zitzaidan zer graziaz kontatzen zituen gauzak. Bere lanen eta beste batzuen irakurketak txandakatzen zituen, hala testuen musikaltasuna, nola ipuin fantastikoak, errealismoa, literatura soziala eta hizkuntzaren tranpak azaltzeko. Ehun ikasle inguru izan zituen, eta eskola bakoitzaren ondoko galde-erantzunak ere biltzen ditu saiakerak. Tutoretza-orduak, beti gainezka. Liburua irakurri nuelarik, buruan izan nuen zer esanen niokeen nik gizon garai hari bulegora joan behar izanen banu; edozein aitzakia litzateke on, zinez, haren bulegora joateko.

Letren fakultatean irakasle hasi nintzenean ere, giro hori sortzea nuen helburu: ikasleak eskola ondoren solasaldirako gogoz gelditzea, tutoretza-orduetan galdezka etortzea. Ez nuen lortu, ez nahi bezainbat. Ni ikasle nintzela, ongi gogoan ditut eztabaida arrakastaz sustatzen zuten irakasleak, esku bakarrarekin konta-

tzen ahal baitira. Nork ez ditu hala-koak gogoan. Curriculumak mugatua baitu solasa, edukiak gailentzen dira ordutegi hertsien eta merkantilizazioaren ereduaren.

Ikasle garaitik gelditu zaizkigun eduki gehienek, ordea, zerikusit gutxi dute testuliburuekin. Lehen Hezkuntzan ginela, mailaketa batez jabetu nintzen, salatzaileak salatuak baino zigor handiagoa jaso zuenean. Ikasi genuen soinketa-irakasle gizonezkoen iruzur egiten ahal zitzaizela korrika egiteko gogorik ezear, hilekoaren aitzakian, eta, aldiz, irakaslea emakumezkoa zenean, ez. Institutuan, Madrilgo atentatuen egunean, irakasleei buruz gehiago ikasi genuen ikasgelatik kanpo, ordura arteko eskola guztietan baino. Orobat hezkuntza ez-arautuan: amak Goenkaleko tramak eta telebista aurreko eserialdiak baliatzen zituen alabarekin drogez, sexualitateaz eta erantzukizunez mintzatzeko. Eta zer esan eskolako patioan ikasten genuen guztiaz.

Berriki, DBHn irakasle dabilen lagun bati hurbileko adiskide bat hil zitzaion lan-istripuan, eta, biharamuneko eskolei ohikoan bezala erantzuteko gai ez zenez, heriotzaz mintzatu zitzairen ikasleei. Ez zaie berehalakoan ahaztuko. Homogeneizazioa eta

lehiakortasuna zerbitzu publikoari eta komunitateari gailentzen zaizkion eredu batean, ordea, nekez halakorik, eta, ondorioz, bakanak saioak. Ikasleak geroz eta helduagoak, orduan eta mito eta literatura gutxiago.

Curriculumaren mugak aski ez, eta Carlos Gimeno Nafarroako Hezkuntzako kontseilariak harresia nahi: “Espainiako Konstituzioan jasota dauden eskubide, behar, printzipio eta balioak urratzen dituzten eskolaliburuak ezingo dira erabili”. Antza, gure mundua (gure iruditeria) zabal daiteke konstituzioak (eta horren aldekoen interpretazioak) baimentzen duen bezainbeste, ez harago. Hezkuntzari jendarte-eraldaketarako gaitasuna aitortu behar diogu, eza-gutza konpartitzeko eta komunitatea indartzeko espazioa dela behingoz sinetsi.

Irakasle trebe bati eskolan eztabaidatzeko joko handia emanen liokeen elkarrizketa aski kaotiko batean, Juan Gorritik zioen hala kantarazten ziotela eskolan: «*Cálzame las alpargatas, dame la boina, dame el fusil. Voy a matar más rojos que flores tienen mayo y abril*». Gorritiri ez zaio sekula ahaztuko fruiturik emanen duen zuhaitzak aurretik behar duela loratu.

LUR eta AMETS



OTSAILAREN
7tik AURRERA
ZINEMETAN

'ORAIN' CD arrakastatsuaren ondoren



IZAN

Musika eta hitz goxoekin
kontzentrazioa lantzeko erlaxazio ariketak
Marina Pintosen eskutik